

III'GARR EN SAILLA

BENETAKO ZORIONA

Gala: Epikur gisa, neurrizale dagerkigu Orati. Barne-atsegiña ta poztasuna ez daude aginpidean, ez asko eukitean, ez izen aundi ta ornenean, ez gorputz-edertasunean, arirnaren neurri ta otzanta-sunean baizik. Erregeak badituzte beren mendekoak, baiña Jupiter dago auen gaiñetik. Danak egoera bat berdiñean bizi ezta ere, ez gera larritu bear, erio bai dator aldaz-beera. Zikoitzak, egiaz, lur-azalean ez-ezik, itxas-gain ere etxeak jaso nai dituztenak. Ez etxe jaiki lerdanak, ez janzkera bitxiak, ez jateko goxOak, ez usaiki eztiak, gizase-meak duen rniña arindu ez ba'dagite, zertako gauza oien billa orren joratsu ta leiaz?

Odi profanum volgus et arceo..,

Jende zakarra iguin dut, ta nik zapuzten.
Ixil zaitzate: Muse'n apaiz, lendik iñoiz
entzun gabeko kanta batzuk
naska-mutillentzat nik ditut.

5 Erregeak, izukor, otseiñak dituzte,
ta aiek ere Jupiter dute agintzaille,
erraldoien garaitzez arro,
bere keiñuz igituz oro.

Gerta diteke onek aek baiñO ildOz ildo
10 maliats-landara berri geiago jartzea;
ura, odol jator, eskale
zelaira; au, oikun-ospez, obe.

Arek maizter geiago ditu, alegia;
Bearrak, baiña, gOiko zein beeko lege batez
15 ditu zori-jotzen; izenak
Oro igitzen kutxa ozenak.

Ezpata utsa buru-gain zemaika daukanak
en du gOxorik noski Sikul-jakietan;
ez kitara-kantuk zorik,
20 eztio itzuliko lorik.

Lo bigunak ez ditu asperkor iñolaz
soro-nekazarien etxe-supazterrak,
ez ur-ondoko itzal itsua,
ez Tenpe aizek dardartua.

25 NaikO dana nai dunik ez du itxasoak
zirika oi; ezta Arktur'en oldar-jas latzak,
itxas-altzOan murgiltzean,
ezta Auntz-txoak goiz jaikitzean;

ez erriak zigortu mahats-alorrek
30 ez soro gezurtiak; naiz zugatzak uren
erruz, naiz izar-galda kezaz,
naiz-ta negu gordiñen espaz.

Itxasoa erraiñei medarño antz zaie,
an ipiñi mukulua; antxe etxegiñak maiz
35 mOrrOiz ditu asoiñak jartzen,
bai lurrez aseak be lerdan.

Baiña, bildur ta zemai, jaun aiña gaillentzen;
Ontzi burniz jantzitik ez dira urrutitzen,
ta zaldizkoaren atzetik
40 Kezka beltza dOa jarririk.

Nork gurituko du min dana? Ez prigitar
arrik, ez izar bezin purpura gorrizkak,
ez falerno-mats gorriak,
ezta Persia'ko usainkiak.

45 Bekaitz-miñez, zertako ditut nik jasoko
zutoin landu-berrizko atarte zangarrak?
Sabin-usa zertako alda nik
on-ibar ziztriñez, ziurrik?

Oarrak. -2. Apaiz antzo itz dagi emen Orati'k. -11 ErrOma'n, Odol argikoen etxeak muiñoetan zeuden geienbat, baiña agintari ta olakoen batzarrak zelaian ospatu oi ziran, eta ara jetxi bear zan. - 18.

Sirakusa'ko Damokel dakarkigu gogora; Sikilia'n orrits-maiak, bestalde, txit ugariak ornen ziran. - Tesali'ko Tenpe ibarrak entzute aundia zun. - 28. Arktur, Itzai izar moltzokoa; otsaillaren 18'an eta irailaren 5'an azaltzen da, eta etzan maiatzaren 23'an eta urrillaren 28'an; naiz agerpena naiz sarrera, euri jasa ta aize erauntsi zakarrez egin oi ditu. *Auntzxoak*, Burtzaiñoaren moltzoko izarkoiak. - 41. Ospe aundia zuten Sinade, Prigi uriko marmol-aitzak; zuri zenun, katamotz margozkoa, orban gorriekin. - 44. *Achaemenium* (Partitar) *costum*, kostu au landara bat zan, Indu ibai muturreko Pataia izaroan batez ere aurkitzen zana, ta beronen sustraiekin usainki bikain-bikaiña egin oi zuten erromatarrak, ardao usain goxoz gantzututeko.

LIBER TERTIUS

Cal. .,len I

AD FELICITATEM

Odi profenum vulgus et arceo:
Favete linguis: carmina non prius
 Audita Musarum sacerdos
 Virginibus puerisque canto
5 Regum timendorum in proprios greges,
 Reges in ipsos imperium est Iovis,
 Clari giganteo triumpho,
 Cuncta supercilio moventis.
 Est ut viro vir latius ordinet
10 Arbusta sulcis; hic generosior
 Descendat in Campum petitor;
 Moribus hic meliorque fama
 Contendat; illi turba clientium
 Sit maior; aedua lege Necessitas
15 Sortitur insignes et imos;
 Omne capax movet urna nomen.
 Destructus ensis cui super impia
 Cervice pendet, non Siculae dapes
 Dulcera elaborabunt saporem,
20 non avium citharaeque cantus
 Somnum reducent. Somnus agrestium
 Lenis virorum non humiles domos
 Fastidit, umbrosamve ripam,
 Non Zephyris agitata Tempe.
25 Desiderantem, quod satis est, neque
 Tumultuosum sollicitat mare,
 Nec saevus Arcturi cadentis
 Inpetus, aut orientes Haedi:
 Non verberatae grandine vineae,
30 Fundusve mendax, arbore nunc aquas
 Culpante, nunc torrentia agros
 Sidera, nunc hiemes iniquas.

Contracta pisces aequora sentiunt
 Iactis in altum molibus; huc frequens
 35 Cacmcta demittit redemptor
 Cum famulis, dominusque terrae
 Fastidiosus: sed Timor et Minae
 Scandunt cOdern, quo dominus: neque
 decedit aerata triremi, et
 40 Post equitem sedet atra Cura.
 Quod si dolentem nec Phrygius lapis,
 Nec purpurarum sidere clarior
 Delenit usus, nec Falerna
 Vitis, Achaemeniumve costum:
 45 Cur invidendis postibus et novo
 Sublime ritu mollar atrium?
 Cur valle permutem Sabina
 Divitias operosiores?

II

BERE LAGUNAI

Gaia: Gosea, egarria ta lan neketsuak eramaten gazte-gaztetatik erakutsi hear zaie Erroma'ko gazteai, gudate zakarrerako gai izan daitezen batez ere. Orla iritxitako kemenak, erritar xumeen gaiñez jartzen ditu auek. Gizonari dagokion dedurik garaiena gudari izatean datza, atsegingarri baila aberriaren alde bizia ematea. Eriok ez bezaie asketsi txepelai. Ona ez dago, bere ornem goraheretan, erri zearen ustetik zintzilika; ezetsí aren erabakiak eta zador ezagun-gaitzez zuzen itzazu ango gazteak, izarrak jotzeraiño aurki. Ixillak ere ba'du bere saria; zu etzaite ar-emanean sartu ezkutua agerian ipiñi dunarekin.

Angustam amice pauperiem pati...

Gogo onez ikas beza gazte bulartsuak
 gudu latzean txiro ta medar hizitzen,
 ta zaldizko izugarri, igunez
 partitar ankerrak aizatzen.

5 Bizi bedi aizetan, gauza izu artean,
 ta jauntxo gudarian andreak ta neskatx
 aziak, etsai-arresitik
 arduratsu begiraturik,

antsi dezatela: "Ai, ene bakal-senarrak,
10 burrukan otz, ez beza bultz leoi biurrik
gudara, asarre odoltsuak
iltze erditik ebats duenik!"

Aberri alde iltzea, ezti bezain eder,
iges doana ere Balbe'k du oratzen,
15 gazte emeen belaun ta sorbalda
izuei ez die parkatzen.

Makur lOtsakOrrik ez dakin onbideak
loi-ezaindu gabeko deduz dirdir dagi;
ez artzen ez uzten maketsak,
erri-aizearen jostari.

Onbideak, ilkor ez diranai zerua
irikiatz, zidor gal-aziz ibil naí du;
gizartea ta lur ezea
ego igesle nardatzen ditu.

25 Sari ziurra ba-du ixilkai zintzoak.
LegOrpe berdiñean bizitzen ez dut nik
utziko Kere ezkuatuaren
ixilla barria duenik,

ezta ura nigaz ontzi me itxasoz ibilli.
30 Egun-aitak maiz, zabar, lOiz bil du Osoa.
Zigor'ek ez du uzten, naiz oin-sor,
jo gabe iges doan gaiztoa.

Oarrak. - 1. Erromatarren artean, amazapi urtekin asten zan
gudaritza, eta an ikasi Oi zuten mutil gazteak, ezeukiak berarekin
ditun lazturak gogO-naiz eramaten. - 4. Oso burrukari ziran partita-
rrak, Eskiti'tik irten eta Persitarren ondakin triskantza gain egokitu
ziranak. - 6. Jauntxo edo tyrannns -gerkarrez *turannos*- itzak,
aintziñakoen artean, errege edo agintari esan nai zuen. Gerkarrak,
askatasun-zale baitziran, aginpide latz-gordiñcz erriak mendera-
tzen zituztenei ematen zien izan au. - 14. Balbe, naiz-ta sarri esan,
erio. - 19. Erri-epaikaaritza nagusiak bere ezaugarria zuen: agatxo-
sOria bat, aizkora edo maketsa erdian zeukclarik; au, Ordca, etzuten
jarri naiz kendu erriaren aizez egiten. - 27. Kere, Saturno ta Kibele'n
alaba zan; aren omenez ospatzen ziran ezkutukiak, txit ixillak bait
ziran, iñork iragarten bazitun, olakoa jainkOen asarrepean bizi
zalakO, ustea zuten. -30. Egun-aita -*Diespater*-, ots, Jupiter, jainkOen
nagusi ta buru.

Carmen II

AD AMICOS

Angustam amice pauperiem pati
Robustus acri militis puer
 Condiscat; et ParthOs feroces
 Vexet eques metuendus hasta;
5 Vitamque sub divo trepidis agat
 In rebus. Illum ex mOenibus hOsticis
 Matrona bellantis tyranni
 Prospiciens, et adulta virgo,
 Suspiret: eheu! ne rudis agminum
10 Sponsus lacessat regius asperum
 Tactu leonem, quem cruenta
 Per medias rapa ira caedes.
 Dulce et decrum est pro patria mori;
 Mors et fugacem persequitur virum,
15 Nec parcat imbellis iuventae
 Poplitibus timidove tergo.
 Virtus, repulsae nescia sodidae,
 Intaminatis fulget honoribus;
 Nec sumit aut pOnit secures
20 ArbitriO popularis auae.
 Virtus, recludens immeritis mori
 Caelum, negata tentat iter via:
 Coetusque vulgaris et udam
 Spernit humum fugiente penna.
25 Est et fideli tuta silentio
 Merces; vetabo, qui Cereris sacrum
 Vulgarit arcanae, sub isdem
 Sit trabibus, fragilemve mecum
 Solvat phaselon. Saepe Diespiter
 Neglectus incesto addidit integrum;
 RarO antecedentem scelestum
 Deseruit pede Poena claudo.

III

GIZASEME ZINTZOARI

Gaia: Artez eragikorra, bizitzako arrisku-zemairik audienetan ere ez da beingoan ikaratuko; bost axola olakoari erri-naste, alkar

ulertu-ezin, matxiñada, jauntxo odol beroen arrokeri ta antzekoakaitik: urki-garapa edo txirlore iduri zaizkionak. Munduari on egin diotenen izenak dakarki ondoren: Polux, Erkul, Bak, eta artean August, Erroma'ko agintari nagusia. Gero, olermen-egoak zabal, jainkoen goi-batzarretaraiño doa Orati, June'ren ezpaiñetan itzaldi arnaz aundikoa ipiñirik. Erroma troiar aritik etorri ba'dator ere, ura (Ilion, Troia) geiegi goratzea ez da egoki.

Iustum ac tenacem propositi virum...

Gizon zintzoa, bere asmoan zail dana,
ez du igitzen gogamen sustraitutik gaitza
zabaldtu nai dun erri-aintzak;
ez jauntxoen betosko beltzak;

5 ez Adri durduritun jaun dan ipar lokak
ez Jobe aundiaren esku ziztariak;
mundua ausiz, beera ba'ledi,
izukaitz lekuske galkuntzak.

Polux: Erkul zarkaillak, entze ontan gogor,
10 goiko su gazteluak zituen iritxi:
August'ek auekin, etzanik,
guraiña deda ao gorri.

Ta zu ere, Bak aita, orla merezirik,
katamotzak eraman zindun muker leno
15 Kirin'ek orrela igestu zun
Akeront, Gudu'ren zaldizko;

June, baitzan jainkoen billera nausian
eder esko mintzatu: "Ilion!, Ilion!
epaile zatar gaizto batek,
20 emakume arrotza lagun,

errauts biurtua. Laomedon'ek opa
sari gabe jainkoak zitunetik utzi,
nik ta Minerba txauak zindugun
erri ta buru illun ezetsi.

25 Ez du gero dizditu Lakena loiaren
arrotz loillorrak; ezta Priamu'ren txamail
dongeak ekitar jauzkorrak.
Ektor lagun, ez ditu sakail.

Ta paketu zan gudu *geure* ezin ikusiz
30 luzatua. Aserre latz auek, geroari,
ta troiar jaupariak erdi
zun illoba ikuina Marte'ri

Itzuliko dizkiot. Ontzat ematen dut,
goitiko egoitzetan sarturik riirriari,
35 mistel-guriña txastatuz leun
jainko-mailletan dedin jarri.

Bego alere Erroma ta Ilion artean
itxas luzea asarre; erkatuak pozik
bebiltza nainon agindurik;
40 Priamu ta Paris'en gaiñik.

beude zartaz piztiak, ta abereak aske
gorde bitzate kumakaien obietan;
begO Kapitot, Erroma autak
legetuz medar garaituak.

45 Dardar edatu izena lur azkeneraiño;
erdiko urak EurOpa ta Aprika banendu
ta Nil putzituak alorrek
urtzen ditun lur artaraiño.

Bedi urre idoro-eza ezetsiz aundiki,
50 -lur-azpi dagolarik obe baita urrea-
ta ez gizagai Oreturik,
deun OrO ere eskuz osturik.

Dana dala, munduko mugarik zaillena
ukitu beza iskilluz, sua ta illunpea
55 ta auri-kasik itsuenak
diran lekuan saia naita.

Baiña errOmar gudu-zaleai zoriak
digarzkit, On izanik ta lar ustekorrak
berriz jaso nai ez ditzaten
60 asaben Troia'ko sapaia.

Txori zurbilpe Trola zoriz ber-jaiorik,
berrirO leramake triskantza illunera,
Jobe'n andre-arreba naizan au
sail garaillen buru dalarik.

65 Ta, Apol egille, irutan zutitu ba'dadi
hurnizko ormea, frutan litzake suntsirik
nere gerkarak erauzia,
senar ta aur andreak mindurik".

Baiña au ez dagokio lira yaukalari.
70 NOra oa, Musa? Utz jainkoen autuak,
arrO edestu Vera txikiz
gai gurenak mee biurtzeak.

Oarrak. - 5. Adriatik itxasoa Itali, Grezi ta Iliri tarteko izpazter zabalada. - 9. Indar auetan tinko, Ots, eramankOr eta zuzentsu, ilkor zirala ezilkor biurtu ziran, izarki-arriz dizdiz dagian ortziraiño igonik; Erkul'ek, alderrai, ludi zarrekO iru alderdiak, Europa, Asia ta Aprika igaro ta zearkatu zitun. - 14. Bak'ek eziteko katamotzak gizeratasunaren eta aurrerakuntzaren ezaugarri dira; oroigailurik geienetan, eta olertian batez ere, panterak izan oi dira; iñoiz baita leoiak, giza-zaldiak, akerrak eta abar ere. -21. Laomedon'ek, Apol'ek eta Neptun'ek Troia'ko arresiak eraiki zituzten arren, eskeiñitako alogera ukatu agin zien eta zemai izugarritz uritik egotzi zitun, Omer'ek *Riada* Izo • I'garren kantuan dionez. - 24. Paris da doillor au, Elena ebatsi zuna; *Lakena*, Lakedemonno erregiña zalako. - 32. Erromul'en ama OdOlez troiarra zan. - 43. Kapitol, Tiber ibaiaren ezker-ertzean, Tarpei mendiska gaiñean jasotako gaztelu bat zan. - 46. ErrOmatarrak *fretum Gaditanum* deitzen zioten Gibraltar'ko itxas-atarraiño guztiari; Europa ta Aprika Onek bai ditu bereizten, - 65. Laomedon'en garaitik, Poibu edo Apol'ek eraiki oi zitun Troia'ko orma-murruak.

Carmen **III**

AD AMICOS

Iustum ac tenacem prOpositi virum
Non civium ardor prava iubentium,
Non vultus instantis tyranni
Mente quatit solida, neque Auster,
5 Dux inquieti turbidus Hadriae,
Nec fulminantis magna manus Iovis;
Si fractus inlabatur Orbis,
Impavidum ferient ruinae.

Hac arte Pollus et vagus Hercules
 10 Ensis arces adtigit igneas;
 Quos inter Augustus recumbens
 Purpureo bibit ore nectar.
 Hac te merentem, Bacche pater, tuae
 Vexere tigres, indocili iugum
 15 Colio trahentes. Hac Quirinus
 Martis equis Acheronta fugit.
 Gratum eloquuta consiliantibus
 Junone Divis: Ilion, Ilion
 Fatalis incestusque iudex
 Et mulier peregrina vertit
 20 In pulverem, ex quo destituit DeOs
 Mercede pacta Laomedon, mihi
 Castaeque damnatum Minervae
 Cum populo et duce fraudulentio.
 25 Iam nec Lacaemae splendet adulterae
 Famosus hospes, nec Priami domus
 Periura pugnaces Achivos
 Hectoreis opibus refringit:
 Nostrisque ductum seditionibus
 Bellum resedit. Protenus et *graves*
 30 Iras, et invisum nepotem,
 Troia quem peperit sacerdos,
 Marti redonabo. Illum ego lucidas
 Inire sedes, ducere nectaris
 35 Succos, et adscribi quietis
 Ordinibus patiar Deorum.
 Dum longus inter saeviat Ilion.
 Romamque pontus; qualibet exsules
 In parte regnanto beati:
 Dum Priami Paridisque busto
 40 Insultet armentum, et catulos ferae
 Celent inultae; stet Capitolium
 Fulgens, triumphatisque possit
 Roma ferox dare Tura Medis.
 45 Horrenda late nomen in ultimas
 Extendat oras, que medius liquor
 Secernit Europen ab Afro,
 Qua tumidus rigat arva Nilus:
 Aurum irrepertum, et sic melius situm,
 50 Qutim terra celat, spernere fortior,
 Quam cogere, humanos in usus
 Omne sacrum rapiente dextra.

Quicumque mundo terminus obstitit,
 Hunc tangat armis, visere gestiens,
 55 Qua parte debacchentur ignes,
 Qua nebulae pluviique Tores.
 Sed bellicosus faca Quiritibus
 Hac *lege* dico, ne nimium pii,
 Rebusque fidentes, avitae
 60 Tecta velint reparare Troiae.
 Troiae renascens alite lugubri
 Fortuna tristi clade iterabitur,
 Ducente victrices catervas
 Coniuge me Iovis et sorore.
 65 Ter si resurgat murus aeneus,
 Auctore Phoebos; ter pereat meis
 Excisus Argivis; ter uxor
 Capta virum puerosque ploret.
 Non haec iocosae conveniunt lyrae;
 70 Quo Musa tendis? Desine pervicax
 Referre sermones Deorum, et
 Magna modis tenuare parvis.

IV

KALIOPE'RI

Gaia. Oda bikaiña, eta Orati'k bere lau liburuetan bildu zitunetatik luzeena. Bere gogai-ardatza auxe da: Aginterriak laister doaz amilbera, adimen argitsuak indarra ematen otsein duela lagundu ezik. Indarra bakarrik ezta ezer, au dala bere aundiz erori oi da. Orati'k auxe dirakas, eta August'ek auxe du lege bere aginte-arazoe-tan, Jakituri orren sorburu, ordea, ortzitar Musak dira. Orati aien apaiz eta igarle duzu; August'ek berdin aiengan du poza ta atsedena. Musa oiek ongille aundiak dira, beran argitan ibilki; Orati'k bezela, zuzen izanik, oitura onak irakatsi ditzagun, edo-ta August'en antze-
 ra ona lur gaiñean zabaltzeko bakarrik indarra erabiltzen dutenentzat batez ere. Onua ta zuurtasuna ditugu gantzuki eder bi, beti ondo jokatzeko geure bizibidean. Erraldoiak eta auen lagunak etzuten orrela egin; beraz, amildegi malkartsuz ondatuak izan ziran.

Descenda caelo, et dic age tibia...

Jetxi zerutik ba, ta, jo zazu txirulez,
 andere Kaliope, luzezko leun kanta;
 naiz -gurago ote?- aots zoliz
 edo Poibu'ren kitara-ariz.

5 Aditzen?... Oler-senak ote nau zoratzzen?
Entzun uste dut eta aron nabillela
baso donetsi zear, or-an,
ur leun ta aizez asetuetan.

Bein, Vultur gain, jostaz ta loaz nekatua,
10 azi nindun Apuli mugaz bestekalde,
arako uso ospetsuak osto
berriz estal ninduten oso.

Arrigarri zitzaien au naiz Akeronte
goituko kabian ta Banki oianetan,
15 naiz Forenti apaleko zelai
gurietan bizi diranai.

Noiz ni egon ere lo, gorputz-eskier,
suge beltz ta artz artean? Noiz ereiñotz deun
ta mirtu ostos estalirik,
20 aur zankar, jainko-jaurri barik?

Zúena, Musak, zuen naiz Sabin-goi otzera
igorik, Preneste ezean gozatsu,
zein Tibur erpiñez aizetu,
zein Baia urtsuak atsegindu.

25 Zuen iturri-dantzen zala nintzalako,
ez nindun il Pilipo'n guda-oin utziak,
ez zugatz itsa, es Palinur,
etzaidan gaitz izan Sikul'go ur.

Zuok iñolez ere nekin zeratela,
30 Bospor zoroz ibilko naiz itxastar alai,
ta txangos Asiri mugako
ondar kiskaliz naiz zaiako.

Britandar arrotz-etsaiak ikertuko ditut,
Konkan ere bai, zaldi-odolez alaia;
35 berdin Gelondar gezidunak
t'oso Eskitiar ibaia.

Zuok, Pieri leizan poz zenuten Kaisar
gurena, bere lanak bukatu naiean,
gugari-talde erbalduak
40 uritan ertsi zitunean.

GOitar jOriok, Onu leuna damazue,
ta emaitzez alaitzen. Jobe'k ba-dakigu
nola gOi-lantarrez garbitu
zitun Titan ta aietar donge.

45 Lege zur darabilzki ark lur igigea,
itxas putz-aunditua ta uri-buruak;
bai jargo illuna ta jainkoak,
berdin gizaki ilkOr taldeak.

Izu eskergea ekar zion Jupiter'i
50 beso-altsu uste zan gazteri lakarrak,
ta anaiak, Pelion jar nairik
Olindu beltzaren gaiñetik.

Zer, baiña, el dute Tipeu ta Mima zaintzailleak,
zer dagi Porpirion antz zemaikordunak,
55 zer Eretu'k, zer Eukeladu'k,
ausart jaurtiz supit ausiak?

Pala'n ikurdi Oskor aitzi, zer al dute
zirrilda oiek? Antxe zegon su-jarO
Vulkan, an zan Jone amandre:
60 antxe bizkar-gain, usteke.

Arranbel-eramaille, Kastali'ko iñotzez
bere ille txau askeak ezkotzen dituna,
Liki-tara t'oianak dauzkan
Deli ta Patara'ko ApOl.

65 Indar zur-eza bere aundiz da erortzen:
Jainkoak dute berriz neurtua ugaltzen,
edozein gaitz barrun oretzen
dunari ingira diOtela.

Ene esanen lekuko or Gigas eun eskudun,
70 ordun ere ezagun bai dugu Diane
ikugea zirika zana,
neskatsaren geziz ezia.

Miñez da Lurra bere bidutzi eOrtz gain,
bere aur Urkoitsera tximistaz jaurtiak
75 negartuaz; gain duten Etna
etzun su kiskalkorrek aitu;

ez du Liki loiaren gibela saitzarrak
uzten, nabarmenaren zaintza erantziz;
80 ta irureun katek lotzen dute
Piritoo maitalea ere.

Oarrak. - 2. Maitagari, Musaen artean Kaliope zan agurgarriena, ots, erregiña; ark idarokita kanta oi zuten aintziñakoak, bertso-sail luze soiñutsuetan, jainko ta gizurenak jauki ta buruturiko egipen arrigarriak. - 9. Vulkan, gaur Azerenza. - 11. Venus'en gurdia zerabilten usoak. - 14. Banki ta Forenti, gaur Bazi ta Forenza, bata mendartean sartua ta lur lauan nestea; Lukani'n zeuden biok, Orati loan artu zun lekuan. - 22. Preneste, gaur Palestrina, Lati'ko uri zarra, Erroma'tik egoaldera, Udan batez ere aize ozkirritan aberats. - 26. Pilipo, Tesali'ko uria; ementxe izan zan Bruto ta Kasi'ren aurkako erasoaldi latza; erromatar gudarosteak atzera egin zunean, an izan zan Orati ere, baiña Musak lagundurik etzun ezeren kalterik izan. - 27. Palinur, -Enea'ren ontzi-zuzendaritik du izena-, Lukani sarkalderuntz dugun itxas-muturra. - 34. Konkan, Españi'ko Tarrakone aldeko erria; atsegin basakar au ornen zuten, Bergili'k bere Lur-kantak'etan, III, 450-561, dionez, bisaltar eta gelondarrak ere. - 37. Pieri mendia Musai opalduta zegon, Tesali ta Makedoni'ko mugaldean. - 39. Uri askotan taldeka banandu zitun August'ek Aki-ko gudu-erasoan izan ziran eun milla gizonak. - 53. Tipeu, Tartar ta Lurraren azken-semea, aize kaltegarri ta asarre gaizkiñen aita, eun burundun bidutzia, Etna pean obiratua; Tipeu, Mima, Porpirion, Enkeladu, Eretu dira Erraldoien izenak, beren indarrenean ustetsu ortzi-goiraiño igo nai izan zutelako, Lurraren sabel-leizara amil-duak. - 41. Kasteli, Parnaso'ko iturri donetsia. - 64. Apol'ek, neguko sei illetan, Liki'ko Patara'n eman oi zitun bere iragarpenak, eta' Delos'en udako sei illebetetan. - 80. Ixion'en seme ta lapitarren bakaldun, Persefone ebatsi nai izan zun, Teseu bere adiskide miñak lagunduta.

Carmen IV

AD CALLIOPEN

Descende caelo, et dic age tibia
Regina longum Calliope melos
Seu voce nunc mavis acuta,
Seu fidibus citharaque Phoebi.

5 Auditis? an me ludit amabilis
 Insania? Audire et videor pios
 Errare per lucos, amoenae
 Quos et aquae subeunt et aerae.
 Me fabulosae Volture in Appulo
 10 Altricis extra limen Apuliae
 Ludo fatigatumque somno
 Fronde nova puerum palumbes
 Texere: mirum quod foret omnibus,
 quicumque celsae nidum Acherontiae,
 15 Saltusque Bantinos, et arvum
 Pingue tenent humilis Forenti;
 Ut tuto ab atris corpore viperis
 Dormirem et ursis; Ut premerer sacra
 Lauroque conlataque myrto,
 20 Non sine Dis enimosus infans.
 Vester, Camenae, vester in arduos
 Tollor Sabinos; seu mihi frigidum
 Praeneste, seu Tiber supinum,
 Seu liquidae placuere Baiae.
 25 Vestris amicum fontibus et choris,
 Non me Philippis versa acies retro,
 Devota non exstinxit arbor,
 Nec sicula Palinurus unda.
 Utcumque mecum vos eritis, libens
 30 Insanientem navita Bosporum
 Tentabo, et arentes arenas
 Litoris Assyrii viator.
 Visam Britannos hospitibus feros,
 Et laetum equino sanguine Concanum;
 35 Visam pharetratos Gelonos
 Et Scythicum inviolatus amnem.
 Vos Caesarem altum, militia simul
 Fessas cohortes abdidit oppidis,
 Finire quaerentem labores,
 40 Pierio recreatis antro:
 Vos lene consilium et datis, et dato
 Gaudetis almae. Scimus ut impios
 Titanas immanemque turmam
 Fulmine sustulerit caduco,
 45 Qui terram inertem, qui mare temperat
 Ventosum, et urbes, regnaque tristia,
 Divosque mortalesque turbas
 Imperio regit unus aequo.

Magnum illa terrorem intulerat Iovi
 50 Fidens iuventus horrida brachiis,
 Fratresque tendentes opaco
 Pelion inposuisse Olympo.
 Sed quid Typhoeus, et validus Mimas,
 Aut quid minaci Porphyrion statu,
 55 Quid Rhoetus, evolsisque truncis
 Enceladus iaculator audax,
 Contra sonantem Palladis aegida
 Possent mentes? Hinc avidus stetit
 Volcanus, hinc matrona Iuno, et,
 60 Nunquam humeris positurus arcum,
 Qui rore puro Castaliae lavit
 Crines solutos, qui Lyciae tenet
 Dumeta natalemque silvam,
 Delius et Patareus Apollo.
 65 Vis consili expers mole mit sua:
 Vim temperatam Di quoque provehunt
 In maius, idem odere *vires*
 Omne nefas animo moventes.
 Testis mearum centimanus Gyges
 70 Sententiarum, notus et integras
 Tentator Orion Dianae
 Virgínea domitus sagitta.
 Iniecta monstris Terra dolet suis,
 Maeretque partus fulmine luridum
 Missos ad Orcum: nec peredit
 Inpositam celer ignis Aetnen;
 Incontinentis nec Tityi iecur
 Relinquit ales, nequitiae additus
 Custos: amatorem trecentae
 Pirithoum cohibent catenae.

V

AUGUST'EN GORALPENEZ

Gaia: Jupiter goi jainkoak, odei ta laiño artean, iñuzturi ta tru-
 moi-ots diarduala, August'ek gudu-oiñaztarrak jaurtzen ditu britan-
 dar eta persatar gogaikarrien aurka. Kraso'tarrak, aíta ta semea, ta
 auekin bi milla erromatar jausi ziran Karres'ko triskantza ikaraga-
 rrian, Kristoren aurreko 88'garren urtean; ogei milla, gaiñera, atxi-

Ilo egin zituzten etsaiak, eta batzuk, bizirik irtetzearren, bertako emakumak emaztetzat artu ta partitarren gudari egin ziran. Auek darabilzki Orati'k darda gaiñean, Erregul'en ikasbide ederra, ordea, gogo beroz txalotzen du.

Caelo tonantem credidimus Iovem...

Odei-ots izu Jobe uste genun goian
maisu; baiña August dugu lurrean jainkoa;
bere erreñura uztar bai ditu
britandar eta persar izu.

5 Bizi al zan Kraso'ren gudaria zakar,
arrotz-andraren senar? Eta, -oi biltzarra
eta ekandu aldatuak!-
Marsotar eta Pulletarrak.

Medo errege mende aita izun lurrean
10 zaartu dira, ikurdiak, izen ta toga aantziz,
Veste betikorra, Jupiter
t'Erroma uria aratz dirala?

Au aitzindu zigun, bai, Erregul zorrotzak;
baldintza itsusiak baieztu naiezta,
15 gero gaitz aundiak izango
zitun naasia ezetzita.

Espa zegon gaztedi erruki duin-eza
ilkor etsiz, esan zun: "Neuk nitun ikusi
gure ikurrin ta armak, odolge,
20 Puni-elizeten zintzili;

Erritar askoen bizkar beso biurtuak,
sar-ateak zabalik, ta berriz landuta
zeuden gure gudu-kemenak
maizpildu zitun elor-saillak.

25 Urrez erosi arren, gure gudaria
ote zaillago eingo? Gaitzari kaltea.
Ezta leneratuko berez
Margo gal dun artillea.

Giza-kemena ere, bein auldu ezkeru,
30 ez da berriz itzul oi bular erdoitura.
Sara itsu artetik iges dan
oreiñak bai ba-du burruka.

Sendo izango ere etsai txarrari emana;
gudu, berriz, bai, joko ditu penitarrak.
35 Beso atzitan lokiak aul
 asma t'eriok izu zunak.

Onek, bizia nundik artu etzekila,
guduz nasi zun pakea. Au lotsaria!
40 Oi Kartago aundi!, Itali'ko
 mozkin laidotsuz goretsiar.

Esan oi da, jopu bai'litzan, bere emazte
garbiaren lazтана ta aurak bazterturik
eta bere giza-arpegia
beian itunki tinkoturik,

45 Guraso urduri aiek iñork lendik eman
gabeko onuz etsirik, gelduta so zeuden
lagun artetik joan zala
atzerrirako bidez lerdan.

Ta ba-zekin ark ondo zer sari emango
50 zion arrotz gaizkiñak! Alere, utzi zitun
senideak eta itzulia
galazi nai zion erria.

Joan zitzaigun bere zainpekoen garatz
luzetako auzirik garbirik utzita,
55 Venafro zoro naiz Lakede
 Tarento'ra lez ba'lioia.

Oarrak. - 6. Senadua. - 8. Itali'ko errí gudalaririk azkarrenak. - 13. M. Atili Erregul, Kristo eurreko 326'garren urtean, kontsul izana. Ur ta lur gauza arrigarriak egin ondoren, Lakedemoniar Xantípo buruzagi zuten kartagotarrak azpiratu ta morroillope jarri zuten. Esana danez, bost urte giltzapean egin ostean, Erroma'ra bialdu zuten pakezkoak egiteko, baiña zeramazkin erabakiak Erroma'n onartu etzitzaten berberak alegiñak egin zitun ango Biltzarrean. Kartago'ra biurturik, antxe il zan neke gorriz oiñazetua. - 23. Kartago'koak, alegia, zabalik bai zeuden pake betean bezela, ezeren koska gabe.

Carmen V

LAUS AUGUSTI

Caelo tonantem credidimus Iovern
Regnare: praesens Divus habebitur
Augustus, adiectis Britannnis
Imperio, gravibusque Persis.

Milesne Crassi coniuge barbara
Turpis maritus vixit? et hOstium -
PrO Curia, inversique mores!-
Consenuit socerorum in arvis,

Sub rege Medo, Marsus et Appulus,
10 AnciliOruIn et noIninis et togae
Oblitus, aeternaeque Vestae,
Incolumi Iove, et urbe Roma?

Hoc caverat mens prOvida Reguli,
Dissentientis conditionibus
15 FOedis, et exemplo trahenti
Perniciem veniens in aevum.

Si non periret in miserabilis
Captiva pubes. Signa ego Punicis
Adfixa delubris, et arma
20 Militihus sine caede, dixit,

Derepta vidi: vidi ego civium
Retorta tergO hrachia libero:
PORTasque non clusas, et arva
Marte coli populata nostro.

25 Auro repensus scilicet acrior
Miles redibit. FlagitiO additis
Damnurn. Neque arnissos cOlores
Lana referí medicata fuco.

Nec vera virtus, quurn semel excidit,
30 Curat reponi deterioribus.
Si pugnat extricata densis
Cerva plagis: erit ille fortis.

Qui perfidis se credidit hostibus;
Et Marte Poenos proteret altero,
35 Qui lora restrictis lacertis
 Sensit iners, timuitque mortem.

Hic, unde vitam sumeret, inscius,
Pacem duello miscuit. O pudor!
40 O magna Carthago, probrosis
 Altor Italiae ruinis!

Fertur pudicae coniugis osculum,
Parvosque natos, ut capitis minor,
Ab se removisse, et virilem
Torvus humi posuisse voltum;

45 Donec labantes consilio patres
Firmaret auctor numquam alias dato,
Interque maerentes amicos
Egregius properaret exsul.

Atqui sciebat, quae sibi barbarus
50 Tortor pararet; non aliter tamen
Dimovit obstantes propinquos,
Et populum reditus morantem,

Quam si clientum longa negotia
diiudicata lite relinqueret,
55 Tendens Venafranos in agros,
 Aut Lacedaemonium Tarentum.

VI

ERROMATARREI

Gaia: Kristoren aurreko 28'garren urtea zan. August, erromataren buruzagia, zoli ta ajolatsu zebillen bere menpekoen oitura ta ekanduak berriztatu nairik, oso eroriak bait zeuden garai artan. Ortarako, jauretxe jausiak dotoretu ta berriak jasotzeko lanean aspertu gabe ari zan; gizarteko legeak, eta batez ere ezkontzari buruzkoak indar-berritu zitun. Egikizun ontan Orati'k laguntzen dio bere lirakin. Geroak, izan ere, nor ez du kezkaraziko? Ta gaztedia dugu geroaren itxarokizun. Eta zer ekarriko du, zer emanen gaizki

azitako gaztediak? Orati'k bada-ezpadako gurasOak azitakO gazteak zeuzkan bere begi aurrean, oda eder au idazterakoan batez ere. Zertan ote dugu osabidea? Aurretikoen oltura zindoetara itzuli ta aiek zaindu ta gordetean. Aldiak oro galdu oi du. Gure asabak eta aitonak baiñO txarragO gera, ta gure seme-alabak gu baiño okerra-goak izango dira. Gaitz-zulora jausi ez gaitezen, lenari autsi bearra daukagu.

Delicta maiorum inmeritus lues,..

- Errurik gabe, erromar, dituzu txautuko
asaben oker-utsak, jainko-jauretxeak
t'opamai jausi ta ke beltzak
IOitu irudiak osa arteño.
- 5 Jainko-peko bai zera, ortik zuk agintzen:
ortik asipen oro, orri egotz azken.
Jainkoak ezetsiz zaizkigun
gaitz asko sar Espera itsean.
- Lendik ere, Manes ta Pakor'ek, bi aldiz,
10 gur'oldar zurigeak burrukan zituzten
azpira, beren idun pitxi
txurrei berriago bat jantziz.
- uria, matxiñadaz arturik Dako'k
eta Etioplarrak garbitu ziguten;
15 ura, Ontzitan izugarri,
obea au gezia jaurtitzen.
- Aldiak, gaitz-ama on, lanen ezkontz-piak
loitu zizkigun, seme t'etxeak ere bai;
iturri ark emaniko loiak
20 aberri ta urira ixur ziran.
- JOniar dantza nai du neskatx zoiak jakin,
ta gogo biziakin da saiatzen ortan;
oraindik orpo samur, maite
loiak dakarkizki gogOtan
- 25 Senarraren ardo-mai saiets ere lazten
gaztegoak billatzen ditu ta ixillean
galazi atsak eroatean
argia il arte ezin du itxaron;

- 30 bai, esangin ta argitan, senarrak dakila
 jaiki ta otseñari izen-txar erosle
 bikain espaiñar ontzi-buru
 danari dei dagio satsu.
- 35 Etzun guraso oietaz sortu gazteadiak
 puni-OdOl tantotan kresala gorritu,
 ez Pirro ta Antilok aunditu
 ta Anibal gordña gaititu.
- 40 Bai, ordea, oian-gizon enda arrotzak
 Sabin-aitzurrez lurra iraultzen zekiñak,
 ta ama zeatz kernetsu batek
 esanera erakarriak.
- 45 Eguzkiak mendien gerizea aldatu
 ta idi gurdiz ibilki aulduak, uztarge,
 a tsarte eztia ekartordu,
 zur-sortak igaroz eziak.
- Zer eztu gutxitu egun galgarriak?
 Aiten aroak -txarrago aitonena baiño-
 gaiztoago egin ginduzan;
 ta guk ustelago emango.

Oarrak. - 3. Oparitako keak jainkoen irudiak baltzitu egin oi zitun, jauretxetako oormaetan. Baita aitu liteke gizarteko burruka, iraultza ta makillaz oiturik zeudela ere. - 5 Munduaren jabe zera, jainkoen esanera bizi zeralako. - 8. Emen Itali da, ez Espaiña. - 7. Monos partarrak, Karres'en, Kraso garaitu zun 53'garren urtean; eta Pakor, Orode erregearen serneak esku artu zun Dekidi Saka azpiratu zuten burrukaldian, 40'garren urtean. - 13. Dakitarrak eta etiopiarak ziran Antoni'ren gudarosteko saillik aundienak; eta garai artan bildur ziran ErroIna'n, bi erri auek curen aurka jaikiko ziralakoan. - 21. Joniarrak, lendabizi Grezi'ko, gero Asi Txikiko, nasal ta limuri bizi ziran. - 34. Leenengo punikar gudua aitutzen da emen, kartagotarrak, azkenengo burrukaldian bakarrik, Sikili ondoan 126 ontzi baiño geiago galdu zituztenekoa. -35. Pirro, Epiro'ko erregea, 275'garren urtean tarentindarra laguntzera Itali'ra eldu ta azkenez M. Kuri Dentatu'k umnirazi zuena. Antiokok aundia, ordea, 223'tik 187'ra Siri'ko errege izan zan; Anibal'i aterpea eman zion, baiña gerOagO Sifo mendi oiñean L. Eskipion'ek banatu zun, Magnesialik urre. - 39. *Sabellis lyonibus*, sabindarren gisako aitzurrez, ots, edo-

zein alor-tramankuluz. - 42. Eguzkia etzatzean, itzalak aundiagotzen; baita aldatzen ere, arrats-beran sortalderantza jaurtitzen baititu goizean sartaldera zijoaztenak.

Carmen VI

AD ROMANOS

Delicta maiorum inmeritus lues,
Romane, donec templa refeceris,
Aedesque labentes Deorum, et
Foeda nigro simulacra fumo.

5 Dis te minorem quod geris, imperas;
Hinc omne principium, huc refer exitum.
Di multa neglecti dederunt
Hesperiae mala luctuosae.

Iam bis Monaeses et Pacori manus
10 Non auspicatos contudit inpetus
Nostros, et adfecisse praedam
Torquibus exiguis renidet.

Paene occupatam seditionibus
Delevit Urbem Dacus et Aethiops;
15 Hic classe formidatus, ille
Missilibus melior sagittis.

Fecunda culpae saecula nuptias
Primum inquinavere, et genus, et domos:
Hoc fonte derivata clades
20 In patriam populumque fluxit.

Motus doceri gaudet Ionicos
Matura virgo, et fingitur artibus;
Iam nunc et incestos amores
De tenero meditatur ungui.

25 Mox iuniores quaerit adulteros
Inter mariti vina: neque eligit,
Cui donet inpermissa raptim
Gaudia, luminibus remotis;

Sed iussa coram non sine conscio
30 Surgit manto, seu vocat institor,
Seu navis Hispaniae magister,
Dedecorum pretiosus emptor.

Non his iuventus orta parentibus
Infecit aequo sanguine Punico,
35 Pyrrhumque et ingentem cecidit
Antiochum, Hannibalemque dirum;

Sed rusticorum mascula militum
Prolis, Sabellis docta ligonibus
Versare glebas, et severae
40 Matris ad arbitrium recisos

Portare fustes, sol ubi montium
Mutaret umbras, et iuga demeret
Bobus fatigatis, amicum
Tempus agens abeunte curru.

45 Damnose quid non inminuit dies?
Aetas parentum, peior avis, tulit
Nos nequiores, mox daturus
Progeniem vitiosam.

VII

ASTERI'RI

Gata: Asteri, Gige'ren emaztea, atsekabetan dago, senarra ErrOma'tik Bitini'ra salerosketan joan zitzaiolako: negar dagi, batez ere, bere leikide Kloc'k txutxu espatsu bai dakar. Orati'k bere erara poztu nai du, Gige'ren leialtasuna baieztu ta ager-erazirik: uclaberria eltzerakoanlen bezin gotor ta atxikia itzuliko zaioa; erriskuak izanik ere, ez da Oietan eroriko. Beraz, bai, ba-du bere burua zaindu bearra Enipeu auzoko arriskutsuagandik bereziki. Itxi etxeko atea illunkeran, eta ez urbildu leiora aren gau-soiño lillurakorrak entzuteko: begi-belarriekin, kOntuz!

Quid fles, Asterie, quern tibi

Zerren negar, Asteri, beti itzekO zaizun
Gige mutillagatik? Uda astez dizute
aizeño otzanak itzuliko,
Tinar salerosketan naro.

5 Auntz-izar geldigaitza igaro ondorean,
Orik'era eraman zizun egoeak;
geroztik lo gabe, negar uts,
daramazki gaualdi otzak.

Arrotz kezkatuaren geznariak gero
10 eun eraz zirikatzen du, Kloe'z irrikan,
zuk besteko suaz erretzen
dala gaixoa esanikan.

Pretu siñist-erreza emazte malmutzak
nola atzi zun diotsa, gezurrezko gaizkiz,
15 Belerofonte garbiari
eriotza eldu eraziz.

Suleizan jausi zori egon zala Peleu,
Magnesar Ipolite'gandik txau igestean,
maltzur-ontzi pekaturako
20 jazoak edesten dizkio.

Baiña alperrik; Ikar'ko aitzak bezin gorra
editzen dio, ala ere oso. Baiña,
lar eder ez dakizun auzo .
duzun Enipeu, izan kontua:

25 Ez dakusgu, alere, ark aiña dakiñik
gudu-zelain zaldia trebe makur-azten;
Tuskar ibaia, berriz, ez du iñork
ziztu berdiñez igarotzen.

Gabaz erts etxea, tez zaitez leioratu
30 txirul buperaren ots leuna entzutean;
ta lakar iraun zazu sarri
"Ankerño" iñork esatean.

Oarrak. - 4. Tinarrak, Trazi'ko erriak ziran, eta Bitini'k ortik artzen du bere izena; gaur Anatoil deritzaio. Itxas Beltze'ko ur-ertzetan eta Asia Txiki'ko barrualdeetan bizi ziran gerkar talde aberats guztiak ementxe zeukatzen garai artan beren salerosketa tokia. Bertotik ekarri oi ziran miesa margoztuak, aizto ta sastakiak, baita Katul'ek, Varron'ek eta Mckena'k goraipaturiko erestun ederrak ere. - 5. Auntz-izar au, burtzaiñaren esku, ako sorbaldan agertzen zaizu, iraillen azkenerantz. - 6. Orik, gaur Eriko,

Epiro'ko kaia. - 13. Pretu, Argosto'ko erregeren emazte Antea'k, bera aterpetu nai zuelakoa zabaldurik, salatu egin zan BelerOfonte azpi jokozko salakuntzaz nunbait. - 17. Peleu, Akileu'ren aita, Akastu Magnesi'ko erregearen emazte Ipolite'k salatu zuan, bere dedua orbandu nai ziola-ta. -21. Ikar, Atika'ko itxas-ertza, izaro ta arkaitzez beteta. - 27. Tuskar ibaia, ots, Tiber. Toskana'n bai dauka bere sorburua.

Carmen VII

■ ASTERIEN

Quid fles, Asterie, quem tibi candidi
Primo restituent vere Favonii,
Thyna merco beatum,
Constantis iuvenem fide.

5 Gygen? Ille Notis actus ad Oricum
Post insana Caprae sidera, frigidas
Noctes non sine multis
Insomnis lacrimis agit.

Atqui sollicitae nuntius hospitae,
10 Suspirare Chloen, et miseram tuis
Dicens ignibus uri,
Tentat mille vafer modis.

Ut Proetum mulier perfida credulum
Falsis impulerit criminibus, nimis
15 Casto Bellerophonti
Maturare necem, refert.

Narrat paene datum Pelea Tartaro,
Magnessam Hippolyten dum fugit abstinens:
Et peccare docentes
20 Fallax historias movet;

Frustra: nam scopulis surdior Icarî
Voces audit adhuc integer. At, tibi,
Ne vicinus Enipeus
Plus iusto placeat, cave;

25 Quamvis non alius flectere equum sciens
Aeque conspicitur gramine Martio,
Nec quisquam citus aeque
'fusco denatat alveo.

Prima nocte domum claude: neque in vias
30 Sub cantu querulae despice tibiae;
Et te saepe vocanti

VIII

MEKENA'RI

Gaia: Orati'k dei dagio Mekena'ri sabel-jai, oturuntza edo jan-edate batera. Baiña zergaitik, ain zuzen, epaillaren lenengoan? Erroma'ko andre ezkonduak egun ortan ospatu oi zituzten "Matronalia" deitu jaiak, sendi-ezkonduen jagole zan June Lukine'ren omenez. Orati, ostera, ezkongai dugu. Egun ori, alare, Orati'rentzat guztiz oroigarria da; egun orretan da bete-betean Sabina'ko bere landetxean aurkitzen zaka, zugaitz astun bat jausi ta doi doi eriotzatik iges egin zueneko urte-urrena. "Nik beti jaituko dut egun au ardao zar oncnakin", diño berak. Eta bere babesle aundi Mekena'ri dei dagio jan-edan artara. Jaurerria pakean dago; datzitarrak, medotarrak, kantauritarrak, eskitiarrak menderaturik daude. Ta olako atzedenaldi goxo bat bear du Mekena'k.

Martiis caelebs quid agam Calendis...

Arriturik diozu, ni ezkongai izanik,
zer ari naizen gertuz epail-lenengoan;
zer diran lore oiek, kee-ontzi beteok
ta zoi gaiñeko ikatzok.

5 Zuk diozu bi izkeran maisu zeren orrek,
nik, bada, zugaitz baten dantzan illik ia,
jan-edan atsegiñak eta aker zuria
Bak'i eskein nizkion.

Urteak, itzulika, dakardan jaionek
10 Tul kontsula zanetik keera egiñiko
txongil-zurari taputz pikez igurtzia
dio jauz eraziko.

Ar itzazu, Mekena, eun ontzi laguna
osasunez dalako, ta luza goizarte
15 argi jagolak: begoz emendik urruti
iskanbilla ta asarre.

Laga itzazu Uriko gizarte atazak.
Galdua da datzitar Kotison'en saldoa;
Medutarra, beretzat gaizkor, iskillu itsez
20 barru cgatua doa.

Otsein dugu Espaiña-rnugako etsai zar
katez berandu lot genun Kantauritarra;
eskitarrak be, ustai lasa, zelai-unak
nolaz utzi dabilta.

25 Aiztu erriagazko kezkek apur batez,
etxeko, bai, utzazu axol geiegia;
ar zazu poz-pozikan oraiñak emana,
utziz kezka gorria.

Orrak. - 2. Acerra darabil Orati'k, au da, intzentsu kutxailla. - 4. Gure ikazkiñak zoi edo belar ezeaz nasturiko lur-zatiz estali oi dituzte beren txondorrek; crromatarrek ere, antza, onako lur-zotalez antolatzen zituzten beren oparimaiak. - 5. Makena oso jakituna zan izkuntzaz, bai latiñean eta bai griegoan. - 8. Raid beti ere aker bat eskeintzen zitzaion; onen ortz edentsuak, be, kalte aundia egin oi dute mastietan, mats-aienak eta txerdenak janaz. Zuria izan oi zan ortzi-indarrei eskeiñitako oparigaien kolorea; oparigai beltzak ziran, berriz, su-lezako jainkoeri eskeiñia. - 10. Errornarrak kontsularen izenez marratzen zuten beren ardaoaren urtea; oitura zanez, ardao zarrezko txongillak pikez igurtzitako kortxoz estaldu ta sueteko ketan jartzen zituzten. - 17. Mekena ordun Erroma'ko ta Itali osoko jauralaria zan. - 18. Kotison, datzitarren erregea, erromatarren ctsai aundi, M. Kraso'k azpiratu zun, Kristo aurreko 29'garren urtean. - 19. Medutarrak, beren artean, guda gordiñean zebiltzan, jo ta eratsi, Fraate ta Tiridate zirala-ta batez ere. - 22. Kantauritarrak, ots, Bizkai'tik Asturias bitartekoak, Agripa'k uztarpetu zitun. - 23. Eskitarrak, burruka-zelaia uzterakoan beren ustaiak lasatu oi zituzten.

Carmen VIII

AD MAECENATEM

Martiis caelebs quid agam Calendis,
Quid velint flores, et acerra turis
Plena, miraris, positusque carbo
Cespitate vivo,

5 Docte sermones utriusque linguae.
Voveram dulces epulas et album
Liberi caprum, prope funeratus
Arboris ictu.

Hic dies anno redeunte festus
10 Corticem adstrictum pico demovebit
Arnphorae, fumum bibere institutae
Consule Tullo.

Sume, Maecenas, cyathos amici
Sospitis centum, et vigiles lucernas
15 Perfer in lucem; procul omnis esto
Clamor et ira.

Mine civiles super Urbe curas:
Occidit Daci Cotisonis agmen:
Medus infestus sibi luctuosus
20 Dissidet armis:

Servit Hispanae vetus hostis orae,
Cantaber, sera domitus catena:
Iam Scythae laxo meditantur arco
Cedere campis.

25 Neglegena, ne qua populus laboret,
Paree privatus nimium cayere:
Dona praesentis cape laetus horae, et
Linque severa.

IX

ORATI ET ALIDE

Gaia: Lide'k, lendik ere Telep'gatik Orati utzi zunak, maitale
bernia egin du, Turi'ko Katais. Orati'k, bere aldetik, maite du Kloe,

ille gorria. Baiña Lide'k eta Orati'k, naiz-ta alkarregandik berezi-
tuak, ba-dute oraindik leen- maitasunaren galda. Egi danez. onezkoak
egin zituzten azkenean. Eta maitetsu berotze onek sortu zun alkar-
izketa txukun au, izkuntza guztietara ainbat bider itzulia. Abesteko
egiña dala dirudi. Gure bertsolariak jardun oi dutenez, aldizka ari
dira emen Lide ta Orati.

Donec gratos eram tibi...

Orati7^:

Eder nintzaizun artean
ta beste gazte jaiο kutunago batek
sama txuria ez erasteen
Persarren errege lain nintzan ni zoritsu.

Lide7k:

5 Beste norbaitek zu geigo
erre ta Lide Kloe'n urrengo etzala,
ni, Lide, izan aundikua,
erromar Ilia aiña nintzan aotua.

Orati i:

10 Orain Kloe'k dit agintzen,
kantutan ikasia ta kitara jole;
alai ilgo ni uragatik,
neska bizitzekotan, adua sozezle.

Lide7k:

15 Elkar-sutan txingartzen nau
ni Kalais'ek, Turi'ko Ornitun semeak;
bi aldiz ilko nintzake,
aurra bizitzekotan, utzirik aduak.

OratiIt:

Ta zer, lengo sura itzuliz,
oilduak berriz borontz-uztarpean bildu?
Kloe gorrizka ezetiz,
20 Lide'ri eiñ ezkerο atea zabaldu?

Lidelt:

Kalais izar lez da eder,
ta zu azal-tortoxa bezela flux-ziztrin,
ta Adria latza lez sumin;
baiña zukin nai dut bizi, il.

Oarrak. - 14. Turi, Lukania'ko uri bat zan. - 21. Izarrak oso eder baitziran erromatarren iritziz, maiz irabilli oi zuten idurikizun ori, edertasunari indar geiago emateko batez ere. - 23. Adria edo Adriatika itxasoa, ekaitzetan ugari, guztiz asarrckor omen zan leenago.

Carmen IX

CARMEN AMOEBAEUM

Horatius

Donec gratus eram tibi,
Nec quisquam potior brachia candidae
Cervici iuvenis dabat:
Persarum vigui rege beator.

Lydia

5 Donec non alia magis
Arsisti, neque erat Lydia post Chloen:
Multi Lydia nominis
Romana vigui clarior flia.

Horatius

10 Me nunc Thressa Chloe regit,
Dulces docta modos, et citharae sciens:
Pro qua non mctuam mori,
Si parcent animae fata superstiti.

Lydia

15 Me torret face mutua
Thurini Calais filius Ornyti:
Pro quo his patiar mori,
Si parcent puero fata superstiti.

Horatius

20 Quid? si prisca reedit Venus,
Diductosque iugo cogit aeneo?
Si flava excutitur Chloe,
Reiectaeque patet ianua Lydiae?

Lydia

Quamquam sidere pulcrior
Ille est, tu levior cortice, et improbo
Iracundior Hadria:
Tecum vivere amem, tecum obeam libens.

LIKE'RI

Gaia: Olerki-mueta atsegingarria. Gerkrarrak "Paraclausithyron" deitu oi zieten onako poesi-tankerai, eta itxitako ate baten aurrean kantatzen ziran kantuak ditugu. Obidi'k dioskunez, auxe izan zan olerkiaren len-agerpena. Erderazko *serenata* bezela duzu, ta gure artean ere ba-zan olako oiturarik; *toberak*, esaterako, gabaz kalean naiz baserrian, kanta ta soifñu, egiten ziran jaiak genitun; askoren artean sarri, ta bakarrik ere bai. Orati'k emen, nunbait, gerkarren antzeko oda bat ondu nai izan zigun, eta baliteke berak Like'ri abestu izatea.

Extremum Tanain si biberes, Lyce...

Naiz Tanain mugan, Like, senar gaiztoakin
 zuk edan bear izan, kupi zaitez nitaz
 alare, zure ate latz aurrean, emengo
 aizetan nagon ontaz.

5 Ate ots aditzen ez el duzu, ta aizez
 zure etxe polit /Aran nola zugaztiak
 oiudagin? Ta nola ditun Jobe'k, aize uts,
 izoztzen elur jausiak?

Ken Venus'ek eder ez dun arrokeria,
 10 gibel biur ez daizun zori ardatza.
 Penelope etzindun sor aita tirrendarrak,
 senargaien axanpa.

Oi, emaitzak, eskeak, maitaleen ildura
 ubelkarak, pieriar anitz oe-aide
 15 ditun zure senarrak mendu ta ere,
 zaite eskaleen erruki.

Etzakit izan gaizto, zakit arte aiña;
 Libi-sugeak baiño zaite samurrago.
 Ez dut, ez, zure ate ta ortzi-eurien
 joa beti jasango.

Oarrak: - 1. Tanais au, gaurko Don duzu, Errusi'ko ibai aundia; Ivan zingiran asi ta bererun kilometru arat-onat ibilli ostean, Azof

itxasoan usten ditu ur zimoltsuak. - 11. Like tirrendar zan, ots, etruskarra. Eta tirrendar emaztekiak, soñiez eder ba'ziran ere, oi tu raz ez ornen ziran aipagarri. Plauto'ren komedi *Cistellaria'n*, bertako antzez-notin batek, LarIipadiskdk, Melenida'ri au egozten dio: "Toskana'ko emakumeak bezela, atzera zeure gorputz ederraren zarramarraz ezkon-saria hiltzen beartua izango". - 14. Pieria, Be-Makedoni¹ko eskualde zarra, eoalderuntz Olinpu duela. Orfeu ementxe jaio zan, antze danez. Bederatzi Musak ere ementxe zeukaten berai eskeiñitako mendi donea. - 18. Lipi edo Mauritani'n, ba, suge asarrekor zitalak egon oi ziran.

Carmen X

AD LYCEN

Extremum Tanain si hiheres, Lyce,
Saevo nupta viro: me tamen asperas
Porrectum ante Tores obiicere incolis
Plorares Aquilonibus.

5 Audis, quo strepitu ianua, quo nemus
Inter pulcra saturo tecta reriugiat
Ventis? et positas ut glaciēt nives
Puro numine Itipiter?

Ingratam Veneri pone superbiam;
10 Ne currente rota funis eat retro.
Non te Penelopen difficilem procis
Tyrrenus genuit parens.

O, quamvis neque te munera, nec preces,
Nec tinctus viola pallor amantium,
15 Nec vir Pieria pellice saucius
Curvat; suplicibus tuis.

Parcas, nec rigida mollior aesculo,
Nec Mauris animum mitior anguihus.
Non hoc semper erit liminis aut aquae
20 Caelestis patiens latus.

XI

LIDE'RI

Gaia: Kondaira odoltsu bat dugu oda onen gai, ots, Danao'ren alaben alegia. Biotz beltza ta basakeria, sulezan ere, zigortuak dirala erakusten zaigu beronen bitartez. Hipermnestra'k bere aitari baietz agindu zion, berak ere, bere aizpen antzera, bere senarra, ezteigauan bertan, il-eraziko zuela, baiña etzun esan egin, Linkeu'ri barkatu baizik. Orati, gertakari au aitzakitza artuta, arako Lide'gana dioa. Hipermnestra goratu ba'dadi ere, neskatxaren biitz gordiña gozatu nairik. Eta ezer baiño leen, arnas eske, Merkuri'ri ta Lira'ri dei dagie.

Mercuri, nam te docilis magistro...

Anfion'ek, Merkuri, zuk ondo irakatsita,
arriak ere kantuz dardar-erazi zitun;
eta zuk, Turtu!, zazpi zain-arietan erne,
soiñu berri-bizidun,

5 ez itz-ontzi ez eder beiñola, eta orain
aberats-mai zalea ta jauretaketakoa;
jalgi doiñu bat, Lide'n belarri setatiak
leuntzeko erakoa.

Au, ba, iru urteko moxal zelai edatu zear,
10 iñork uki ez dion jauzika dabil pozik;
oindio ez daki ark ezkontza zer dan ezta
senar gordiñen surik.

Zuk, katamotz ta baso, drakar ditzakezu
ta ibairik ariñenak ere geldi-erazi.
15 Kerber, su-barrendiko atezain ezagaitza,
zure txeraz zan bizi:

naiz-ta eundaka sugek ari osorik jantzi
sumiñezko burua, ta izan arnas mergatza
20 ta aren iru mingaindunagoari erion
zatarki zital beltza.

Titi ta Ixion'ek be par-zegiten engaraz,
eta, zuk kantu eztiz Danao'ren alabak
gozatzen zenitula, aldikoz beintzat idor
iraun zuen upelak.

25 Adi beza Lide'k gaitz ura, neskatxen zigor
jakiña, ta upel utsa, azpitik ura galtzen,
eta su-lezan ere oben bigorri aiek
naitaez zai dauzkaten

zori tzar berankorrek. Biotz-gabe aiek, ba,
30 -zer gaiztoagorik, lezaketen asmatu?-
galdu aiek senarrei burdin latzez bizia
gaizkin zieten kendu.

Bat, askoren artean ezkontz-zuzirako gai,
zear-bide gaberikitz-jale agertu zan.
35 aitaren aurka gezurti, neska aipagarria
gízaldi guztietan.

"Jeiki -esan baitzion bere ezkon gazteari-;
jeiki, bai; ez bekizu iritx lo amaigea
susmo ez dezunetik; gezur itzazu aizpa
40 dongat, ta aitaiarrea.

Auek, ba, leoi-eme txal arrapari antzo,
senarrak, ai!, banaka xetzen dituzte. Nik,
aiek baiño ziñago, etzaitut zaurituko,
ez jagon ere ertsirik.

45 Kate jasan-gaitzekin sorta nadilla aitak,
senar miñari belatz barkatu ziolako;
naramala berakin ur-ontziz numidarren
azken mugalderaiño.

Zoaz zu, oiñak eta aizeak eramana,
50 Gau ta Venus lagun dituzun bitartean
zoaz, bai, zoriz, ta irar oroikonauten itzak
nere obi gaiñean".

Oarrak. - 1. Anfion, Jupiter eta Antiopere'ren seme, ta Niobe'ren senar, txit ospetsu bere kanta oskidetsuengatik. Merkuri'k lira bat eman zion eta guztiz gozo jotzen baitzuen, Tebas'ko a rresiak jasot zean, arriak ere bakoitza bere lekuan jartzen ornen ziran. - 3. Merkuri'k, dakigunez, turtu edo xaberama baten oskolez egin zuen lenengo ari-jogaillua. - 15. Orpeu'k, lira joaz, otzandu zuen Kerber, baita Pluton emarazi ta oiñazetuen miñak bigundu. - 21. Ixion, lapitarren erregeak, gurgpil bati lotua, sulezan garbitzen du Juno

iraindu nairik egin zuen gaiztakeria. - 24. Belo'ren seme Danao'k, Babilonia erasi zuenak, Libi'tik Argos'era iges egin zuen, bere anai Egipto'ren sare artetik onez irtetzearren. Araiño ere jazartu zuten, eta bere berrogetamar billobak, emaztegaitzat, zeuzkan berrogetamar alabak. Danao'k agindu zien bere alabai, Hiper gauan bertan, bakoitzak bere senarra il-erazteko. Denak egin zuten aitak esana, Iipermnestra'k ezik. Giz-iltzaille auen nekea, sulezan, auxe zan: ondo gabeko upel bat betetzea. - 33. Hipermnestra izan zan bakarbakarrik, bere senar Linkeu'ri bizia parkatu ziona. - 47. Numidia, T.ibi'ko zati bat zan orduan, iparraldeko itxas-ertzean, eta basati zerizkioenak ziran bertako biztanleak. - 51. Hipermnestra'k iltzat zeukan bere burua, aitaren esanaren kontra jokatu zuelako.

Carmen XI

AD LYDEN

Mercuri, nam te docilis magistro
Movit Amphion lapides canendo,
'Puque, Testudo, resonare septem
Callida nervis.

5 Nec loquax olim, neque grata, nunc et
Divitum mensis et amica templis:
Dic modos, Lyde quibus obstinatas
Aciplicet aures.

Quae, velut latis equa trima campis,
10 Ludit exsultim metuitque tangi,
Nuptiarum expers, et adhuc protervo
Cruda manto.

Tu potes tigres comitesque silvas
Ducere, et rivos celeres moran.
15 Cessit inmanis tibi blandienti
Ianitor aulae.

Cerberus; quamvis Furiale centum
Muniant angues caput eius, atque
Spiritus teter saniesque manet
20 Ore trilingui.

Quin et Ixion Tityosque vultu
Risit invito; stetit urna paullum
Sicca, durn grato Danai puellas
Carminibus mulces.

25 Audiat Lyde scelus atque notas
Virginum poenas, et inane limphae
Dolium fundo pereuntis irno,
Seraque fata,

Quae remanent culpas etiam sub Orco.
30 Impiae, narra quid potuere manis?
Impiae sponso potuere duro
Perdere ferro.

Una de multis, face nuptiali
Digna, periurum fuit in parentem
35 Splendide mendax, et in onule virgo
Nobilis aevum.

Surge, quae dixit uiventi manto,
surge, ne longus tibi sompnus, ande
Non times, detur; socerum et scelestas
40 Falle sorores;

Quae, velut nactae vitulos leaenae,
Singulos, eheu! lacerant. Ego illis
Mollior, nec te feriam, neque intra
Claustra tenebo.

45 Ne pater saevis oncret catenis,
Quod viro clemens miscro peperci:
Me vel extremos Numidarum in agros
Classe releget.

I, pedes quo te rapiunt et aerae,
50 Dum favet nox et Venus; i, secundo
Ornate: et nostri memorem sepulcro
Scalpe querelam.

XII

NEOBULE'RI

Gaia: Akeu'k bezela egiñiko oda. Nebule neskatxari zuzendu zion Orati'k. Maltzurra zanez, ba-zekin ba gazte ark maite zuena ixillik. Neskatillak, beti ere, biotz leiala izan dute, illeak zuritzen asitako giza-semeentzat, baita agure zaartxoan ba'dira ere. Ura bezin garden ageri oi zaizkizu. Neobule'k maite zun Lipara'ko Hebro gazte lerdena, baiña etzun nai maitasun ori erakutsi, osaba latz gogor bati bildur ziolako. Ez-arian eta ixil-mixilka ez ibiltzeko diotsa Olerkariak.

Miserarum est, neque Amori dare ludum...

Zori gaiztoko neskatxena da
maite-jokun ez sartzea,
ardo goxotan gaitzak xautzeko
edo oteren miin-sarea
5 itzuri naiez. Zuri, Neobule,
begi bizien betea.
Kiterea'ko aur egodunak
ken dizu jostun-zarea
ta Lipara'ko Hebro'n ederrak
10 Minerba'gazko galea.
Beleroponte bezin azkar da
Hebro zaldi bizkarrean;
lepo igurtziak Tiber uretan
ezkotu zitun ostean.
15 Mutur-joka ez iñork goitu,
ez eta oiñ-lasterrean;
zelaian zear izuak jota
parrastan iges eitean.
Jaioa baita orein bizkorrak
20 gezi eztenez jotean;
eta zolia duzu, bai, ziñez!,
txara tringu sabelean
ondo gorderik dagon aketza
ixil-mixil etzitzean.

Oarrak. -4. Oto, au da, osaba. - 7. Kiterea'ko aur egodun au, Cupido edo Maitagarri duzu, neskatxari jostun-lanerako zapi-otarra kendu diona. - 9. Lipara, eoliar ugarteetako bat. - 10. Minerba'ren lurrak

ziran, noski, emakumeri dagozkienak: etxean eta orratzean maratz izatea. -11. Beleroponte duzu Pegaso zaldia igo ta ezi zuena.- 13. Igeri naiz borrokan nor-geiagoka zebiltzanak, lepo-sorbaldak olioiz igurtzita euki oi zituzten.

Carmen XII

AD NEOBULEN

Miserarum est, neque Amori dare ludum, neque dulci
Mala vino lavere: aut exanimari metuentes
Patruae verbera linguae. Tibi qualum Cytherae
Puer ales, tibi telas, operosaeque Minervae
5 Studium aufert, Neobule, Liparaei nitor Hebri,
Simul unctos Tiberinis humeros lavit in undis,
Eques ipso melior Bellerophonte, neque pugno
Neque segni pede victus: catus idem per apertum
Fulgientes agitato grege cervos iaculari, et
10 Celer alto latitantem fruticeto excipere aprum.

XIII

BANDUSI'KO ITURRIARI

Gaia: Orati'k, dakigunez, Sabina'n zeukan bere landetxea, ta onen urbil xamar zegoen iturri au ere, Olerkariak biotz onez goretsi ta kantatu zuena. Gerkarren literatur jokoan zan orrela egitea, ots, ur-sorburu, erreka, zugatz eta mendi gaillurrak bertsoz goratu. Guk noiz ikasiko ote dugu olako zerbait egiten? Orati'k ere ainbat toki eder aipatzen ditu bere oler-lanetan. Eta Bandusi'ko iturri oni egiñak ez dira kaskarrak. Aintziñakoak uste zutenez, ur-jario, iturri-begi, zingira ta olakoak ba-zuten kutsu doneko zerbait; orixegatik eskeintzak egin oi zizkieten, ostoak, lorak eta abere illak opetsirik.

O Fons Bandusiae, splendidior vitro...

O Bandusi'ko iturri, beira bezin zillar,
ardo goxo gai; ez lorerik gabe,
aume bat eskeiñiko dizut,
len-adarrekin kopeta zut.

5 Maite-su ta jarkira ondo moldatua,
Baiña, alperrik; zuri eztuko dizkizu
talde satsuko seme onek,
odolez, ur ozkirri oiek.

Uda-miñez ezdaki, zu ikuten, aro
10 latzak; otz-giro leuna zuk damakiezu
idi goldetan neketsuai
ta deslai dabiltzan abereai.

Iturri ospetsu, zu ere, izango zera;
aitz-arroen gain dagon artea nun kanta;
15 zure ur-xirripa ortik dator,
dantza-dantzari ta txaplata.

Oarrak. -1. XII'garren mende asieraruntz, Venusa inguruko iturri bati "Fons Bandusinus" esaten omen zioten. Au ote dugu Orati'k emen goraiatzten duena? Digenza'ko iturriak ere Bandusi ezkotzen zuen. 2. Varron'ek dionez, Fontanalia deitu festetan, ots, iturri-omenez urrillaren 13'an ospatzen ziran jaietan, lorezko burestunak eskeintzen zitzaizkien urbegieri, ta urmael ta osiñak lili-txorta ta ustaiz apaintzen zituzten. - 10. Aro latza edo oso beroa zan Txakur-izartegiko Siri'ren irteera; au da; len uztaren azkeneruntz, eta gaur dagonillaren amai aldera. - 14. Orati'k, aurretik ere, aitatu zuen bere olerkietan, an urrean zegoen artadi beltza.

Carmen XIII

AD FONTEM BANDUSIUM

O Fons Bandusiae, splendidior vitro,
Dulci digne mero, non sine floribus,
Cras donaberis haedo,
Cui frons turgida cornibus
5 Primis et Venerem et proelia destinat:
Frustra: nam gelidos inficiet tibi
Rubro sanguine rivos
Lascivi suboles gregis.
Te flagrantis atrox hora Caniculae
10 Nescit tangere: tu frigus amabile
Fessis vomere tauris
Praebes, et pecori vago.

Fies nobilium tu quoque fontium,
Me dicente, cavis impositam ilicem
15 Saxis, unde loquaces
Lymphae desiliunt tuae,

XIV

ERROMATAR ERRIARI

Gaia: Iru urtez Espaiña aldetik gudan ibillita, Erromara dator August. Kantauritarrak batez ere osorik azpiratu ta menderatzeko erdurea Agripa'ri utzirik. Ere berean itzuli zan beiñola Erkul ere, Espaiña ugaldeetan egintza arrigarriak burutu ondorean, Itzultze au zala-ta, esker onezko jaiak egitea erabaki zun Erroma'n. Orati'k, zorionak ematen dizkio Kaisar'i gudan izan dituan egitsari eder guztien alderako; beren artean, Neere kitara jotzailleak lagunduta, izan ditzala orain egun goxoak.

Herculis ritu, modo dictas, O Plebs...

Esana danez, Erkul'en pare, o erri,
eriaz erosi oi dan ereiñotz billa
jun zan Kaisar etxera dator, garaitsuki,
Espaiña'ko lurreti.

5 Betor pozik emazte senar bakarduna,
jainko onai opari egin ondarean;
betor baita buruzai argiren arreba,
t'eskari-zintaz loba.

Neskatxen arnak, t'onez itzuliak diran
10 mutillenak. Ta zuok, gazteok, ta zuok,
neskatx senartuok, zurt zaudete, ez txarririk
zorgindu itzetatik.

Egun onek -egiz jai- kezka beltzak dizkit
oilduko; ez liskarrek, ez indar-eririk
15 ez nau ni bildurtuko, bederen Kaisar'ak
ba'dauzka nerc lurrak.

Oa, ume, ta eskatu gantzu ta koroiak;
Marsa-gudu oroñlle, berriz, ardo upel bat;
Espartako'k bat bera soilki utzi ba'zun
20 arat-onat ibiltun.

Oa,datorrela azkar Neere abeslea,
bere ille beltz-illunak txiripaz lotuta.
Atezai erratsuak luzerazi arren,
ator i beingo baten.

25 Naiz eta azpi-barneko ta dema-zale izan,
illea zurutuaz gogoa samurtzen;
ez nun nik ori jasango, gazte nintzanean,
Planku kontsul zanean.

Oarrak.- 1. Orati'rentzat Erkul, gizon trebenetan trebenetariko bat zan, ezpairik gabe, ta Espaiña'z ari dalarik, baitikbat, maiz eman oi du aren izana. Gerion'en idien aurkako gudan, izan ere, Espaiña zearkatu zun gizuren ongilleak. Ipui ori guttiz zabaldua bait zegoen. Abili ta Kalpe'ko Erkul'en zutoiñak ez tira ospebakoak, ezta Koruña'ko torrea ere. - 5. Senar bakardun au Libi Drusila dugu, August'en emazte. 7. -Oktabi, August'en arreba, Antoni'ren alargun eta, lenen-goz K. Markel'ekin ezkontuta egon zalako, Markel gaztearen ama; gazte oni zuzendua izan zan "Tu Marcellus eris!" esan ospetsu hura. - 12. Ez ebaki zori gaiztoko itzik, ez loirik, ez nabarmenik, ez zorion gabekorik. - 17. Aberats eta adionekoak, jan-edate ta orritsetan, gantzuki usaitsuz igurtzi oi adionekoak, jan-edate ta orritsetan, gantzuki usaitsuz igurtzi oi zituztenberen adatsak.-18. Jesukristo'ren aurreko 91-88'garren urteetan, martsarrak, erromataren kontra sumin bízian, Itali'ko beste aunitz errirekin alkartu ta erri arteko gudu gordiña aizatu zuten. -18. Espartako, Traziko ezpatari ots-aundikoa; beste ezpatari ta gudazale batzugin bildu ta Itali osoa, Kanpani'tik Alpes'etaraiño zearkatu zun, ostu, erre ta il. Morroi-gudu esanikoan irtenena izan zan, Kristo aurreko 73-71 bitartean. - 28. L. Munaki Planku, Jesukristoren aurreko 42'garrenean izan zan kontsul, Pilipo'ko erasoaldiko urtean; an zan Orati be, 22 edo 23 urteko gudari gazte, I3ruto'ren gudarostean.

Carmen XIV

IN AUGUSTI EX HISPANIA REDITUM

Herculis ritu, modo dictus, O Plebs,
Morte venalem petiisse laurum,
Caesar Hispana repetit Penates
Victor ab ora.

Ez, Poloe'ri dagokona
ez dagokizu zuri, o Klore!
Ondo legike zur'elabak
10 lautuz gaztien etxe ta lore,
txunxun-osez su era zia
naiz-ta urdangea ba'litz zapore,
Noti'gazko suak darama
auntz saltani lez jolas-min erre.

15 Lukeri argitik urbiltxo
on dagokizu ille iresirik,
ta ez kitarik, ta ez arrosa
gorri-orien lili-bururik;
ezta ere, zarra baitzera,
ondo-beeraiño edan -upelik.

Oarrak. - 7. Poloe, Klore'n alaba gaztea, jan edanetarako ta dantzarako gai. - 15. Dauni zeritzan Apuli alderdi artako urizar bat genuan Lukeri. Ta, Estrabon'ek dioskunez, Tarento'k berak baiño ere artille bikaiñagoak ematen zitun. - 18. Arrosa gorritz apaintzen ziran aintziña bazkaldiarrak. - 20. Eta Bako'ren adiskide porrokatu ziranez, ardao-upelak ere ondo ondoraiño ustutzen zituzten, gaur euskaldunok egin oi dugun antzera edo.

Carmen XV

AD CHLORIN

Uxor pauperis Ibyci,
Tandem nequitiaç fige modum tuae,
Famosisque laboribus;
Maturo propior desine funeri
Inter ludere virgines,
Et stellis nebulam spargere candidis.
Non, si quid Pholoen satis,
Et te, Chlori, decet; filia rectius
Expugnat iuvenum domos,
Pulso Thyas uti concita tympano.
Illam cogit amor Nothi
Lascivac similem ludere capreae:
Te lanae prope nobilem
Tonsae Luceriam. non citharae, decent,
Nec flos purpureus rosae,
Nec poti, vetulan, faece tenus cadi.

MEKENA'RI

Gaia: Dirua ez dugu edozer gauza, leen eta orain beronek baitutu iriki ate guztiak. Orati'k Mitologi'tik eta EdestiTik arturiko gertatu ta ulerbidez poliki azaltzen gai au, poema lirain onetan. Urreak ipiñi zuen Danae Jupiter'en eskuetan; bere bitartez lurralde zabalak menderatzen dira, saldukeri aundiak egin ere bai; azaletiko dizdiza ekartzen digu, baiña iñolaz ere gure barruak opa duen zori ona. Orati'ri beintzat etzion eman, zeruak nai zuenez erdiko maillan jarri zuelako, pozik bai zaigu agertzen oda onetan.

Inclusam Danaen turris aenea...

Gau-maitaleengandik naikoa jagona
zeuzkaten bai Danae atxilo artua,
borontzezko dorreak, ate txit sendoak
ta zakur zaindari zurbillak:

5 neskatz izkituaren jagole Akrisi
bildurtiz Jupiter ta Venus ixekatu
ezpalira. Auek bai zekiten bidea,
Jainkoa urre itzuliz, egoki.

Bezilari erditik joan oi da urrea,
10 tximista erorteak adima kementsu
aitzak ere puskatuz. Gerkar aztiaren
etxea lukurrez zan aitu.

Mekedar gizak uri-ateak doaiez
arraildu zitun, eta errege buruak,
15 bere etsaiak, eratsi; doaiak uzkalten
ditu ontzi buru ezkaitzak.

Diru ugarituari ardurak jarraitzen,
ta geiagoren miñak, Zaldunen ospea
zeran Mekena, iguin izan nun burua
20 lar gora nabari jartzea.

Nainork, diru-grifñari uko eiñ neurrian
jainkoen eskutik du artuko. Billotsik,
ezer nai eztutenen gud'oiñera noa,
iges, aberats-sailla lagarik.

25 Aberatsago nauzu etxaguntza utzian
nere aletegian bilclu banu baiño
pulletar langilleak, on artean txiro,
areatzen duen guztia.

Aprika joriaren jabetza duenak
30 ez daki ur garbi latzak, idi-lan gutxiko
besoak eta uztaren erantzun ziurrak
zori utsa dakarzkitea.

Kalabri'ko erleak ezirik ez eman
arren, nire ardoak lestrigoni-suillan
35 zaartu ez, eta txima ugaririk prantses
pentzeak niretzat ezi ez.

Nigandik alere urrun ezeuki nekaitza,
ta geigo nai ba'dut, ez didazu ukatuko.
Diru-gosea itorik ditut ordainduko
40 obeki zerga ñimiñoak;

bai, Aliate'n ala Migdon-alorrakin
bilduta baiño obeki. Asko nai dutenai
askok uts eman. Ongi du Jainkoak
esku urri, naikoa emana.

Oarrak. - 2. Akrisi, Argos'ko erregeren alaba; au da, Akrisi'k, bere alaba, billoba baten eskuz ilko zala azti baten bitartez jakiñik, burnizko dorre baten ezkutatu zuen, ate ta zaindarekin inguraturik, seme-alabarik izan etzezan, baiña Jupiterek dorre barrura ur antzo ixuririk, errege alaba onengandik seme bat izan zuen. Perseu zeritzan. - 11. Anpiaroa dugu azti ospetsu au, ta Adrastu onen anaiia Argos'ko errege. Aberaskien euki-miñak ondatu zion etxea oso-osorik. - 13. Pilipo dugu au, Makedoni'ko errege, bere kemenez eta urrez gerkarren aginterririk geiena menderatu zuena. - 31. Gaurko Digenza, Orati'ren udetxea zegoen tokiko Bandusi ureztatzen zuen errekaztoa. - 33. Kalabri'ko erleen ezitia oso eder-etsia zan. 34. Au da, txantxil baten, ots, Formi'ko pagarrean, Lati'n, Kanpani'ko itxasertzeko uri oni -gaur Mola di Gaeta- lenago *Laestrygum* zeritzaion, Lamo'k, lestrigonderren bakaldunak jasoa izan zalako. - 35. Gali Alpes-mendikoa, bertako ardien illea txuri-txuria baitzan, Po ibaia- ren alderdi bietakoenabatez ere.- 41. Aliate, Lioi'ko errege, Kreso'ren aita, 617'garren urteetan, Kristoren aurretik bizi izan zana.

Carmen XVI

AD MAECENATEM

Inclusam Danaen turris aenea,
Robustaeque fores, et vigilum canum
Tristes excubiae munierant satis
Nocturnis ab adulteris:

5 Si non Acrisium, virginis abditae
Custodem pavidum, Iupiter et Venus
Risissent: fore enim tutum iter et patens
Converso in pretium Deo.

10 Aurum per medios ire satellites,
Et perrumpere amat saxa potentius
Ictu fulmineo. Concidit auguris
Argivi domus, ob lucrum.

15 Demersa exitio. Diffidit urbium
Portas vir Macedo, et subruit aemulos
Reges muneribus. Munera navium
Saevos inlaqueant duces.

20 Crescentem sequitur cura pecuniam,
Maiorumque fames. Iure perhorru
Late conspicuum tollere verticem,
Maecenas, equitum decus.

Quanto quisque sibi plura negaverit,
An Dis plura feret. Nil cupientium
Nudus castra peto, et transfuga divitum
Partes linquere gestio,

25 Contemtae dominus splendidior rei,
Quam si, quidquid arat impiger Appulus,
Occultare meis dicerer horreis,
Magnas inter opes inops.

30 Puras rivus aquae, silvaque iugerum
Paucorum, et segetis certa fides meae,
Fulgentem imperio fertilis Africae
Fallit. Sorte beatior,

Quamquam nec Calabriae mella ferunt apes,
Nec Laestrygonia Bacchus in amphora
Languescit mihi, nec pinguis Gallicis
35 Crescunt vellera pascuis:

Importuna tamen Pauperies abest;
Nec, si plura velim, tu dare deneges.
Contracto melius parva cupidine
40 Vectigalia porrigam,

Quam si Mygdoniis regnum Alyattei
Campis continuem. Multa patentibus
Desunt multa. Bene este, cui Deus obtulit
Parca, quod satis est, manu.

XVII

ELI LAMIA'R I

Gaia: Oda au Olerkariaren jolasketa besterik ez duzu. Berton goratzen du Ehi Lamia'ren jatorri argia. Formi'ko len-errege izan zan Lamo'ren ondorengo noski, gure kondaira-orriak diotenez, uragandik bai dator lamitarren izena. Ehiri diotsa egun onak gozatu ditzala, sendi ta jopu guztiekin bere zoria poz-pozik jaituaz.

Aeli, vetusto nobilis ab Lamo...

Eli, Lamo zarreko gizon aundikia,
emendik ei dakarte, ba, len-lamítarrak
eta auen ondorengo etorki guztiak,
edestiak dionez, deitura bizia;

ta Formi'ko muruak ark jaso zituan,
uragandik dakarzu zuk ere odola,
ta Marika ur-egalez luzatuaz doan
Liris lurralde nasai guztian nausi izan.

10 Biar, Eurok sortazi akaitz loka batek
orri askoz ereingo du usa, ta alperriko
alokaz ondartzea, belatxinga zarrak
bere euri-igarkizunez ipui ezpa-dio.

Al duzuño zamatu zeure sukaldea
egur leorrez: biar ardoaz atsegin,
15 eta, lanik ez duten otseñak taldeko,
bi illabeteko esne txerriño batekin.

Oarrak. - 7. Kanpani'ko itxas-aldeak Marica izena zekarten, lurralde ontan errege izan zan Kirko'gatikonen eriotz ostean batez ere. - 8. Liris, gaur Garigliano, ibilli nagian Marika'ko ur-ertzak miazkatzen ditun ibai. 9. Euro, neguan eguzki-aldetik datorren aizea. - 11. Egazti au, irureun bat urtetan bizi izaten zala esan oi zuten lenago; bere kua-kua ta urubiz euria iragartzen ornen du.

Carmen XVII

AD AELIUM LAIIAM

Aeli, vetusto rxobilis ab Lamo,
Quando et priores hinc Lamias ferunt
Denominatos et nepotum
Per memores genus omne fastus

5 Auctore ab illo ducit originem,
Qui Formiarum moenia dicitur
Princeps et innantem Maricae
Litoribus tenuisse Lirim,

Late tyrannus; eras foliis nemus
10 Multis et alga litus inutili
Demissa tempestas ab Auro
Sternet, aquae nisi fallit augur

Annosa cornix. Dum potis, aridum
Compone lignum: cras Genium mero
15 Curabis et porco himestri
Cum famulis operum solutis.

XVIII

PAUNI

Gaia: Olerkariak Paun jainkoaren babosa eskatzen du bere zelai ta alorrentzako. Bere lur zear biotz-bera igaro daitela; ez dezaiola

kalterik bere talde samurrari, esker onez beterik eskeintzen dizkio ba, aurre bat, ardoa ta ke usaitsua. Lotazilleko gauzez ospatzen duten jaiak marrazten du. *Faunalia* deitu jaiak alere otsaillaren amairuan ospatu oi ziran; orixegatik, Orati'k emen zeazten digun jai au Mandela auzokoa edo izango zan.

Faune, Nympharum fugientum amator...

Paun, Ninpa igeskarien maitale kartsua,
zatozkit otoi biotz leun nere mugalde
ta soro zabaletaz, ez jun nere talde
txikiari on egiteke:

5 aurre guri bat illik baita urtero jausten,
Venu'ren sendi-ontzian ezta peit arnoa,
ta aintziñako opamaiak aterge du ixurtzen
ke-moltso ugari usaitsua.

Zelai belartsuan jai dagi talde denak,
10 lotazilleko nonak zutzat itzultzean:
auzoak lanik gabe, idi geldiekin,
jai dagi pentze ta larrean.

Otsoa dabil bildots ausarti artean;
zuretzat du oianak edatzen ostoa;
15 jorrazaillea pozik da oiñez irutan
ertsi dulako lur-zorua.

Oarrak. - 1. Paun, Marte'ren seme, alorretako jainko, uste zanez, Arkadi'tik Itali'ra igarotzen zan otsaillaren amairuan, eta emendik ara lotazillaren bostean; eta bai etortzean bai joatean, jai bereziak egin oi zitzaizkion. - 3. Izan zaitez mesedegarri nere aume ta bildots tipientzat. - 10. Lotazillaren bostgarrenean, zuri eskeiñitako egunean, abere guztiak jauzi ta gora dagite beren bazke-lekuetan. - 15. Jorrazaillecak berak ere pozik aurkitzen ziran, olako jaietan, egunean iru aldiz dantzatzeko astia izan oi zutelako.

Carmen XVIII

AD FAUNUM

Faune, Nympharum fugientum amator,
Permeos fines et aprica rura
Lenis incedas, abeasque parvis
Aequus alumnis:

Si tener pleno cadit haedus anno,
Larga nec desunt Veneris sodali
Vina cratei-ae, vetus ara multo
Fumat odore.

10 Ludit herboso pecus omne campo,
Quum tibi Nonae redeunt Decembris:
Festus in pratis vacat otioso
Cum bo^ye pagus:

15 Inter audaces lupus errat agnos:
Spargit agrestes tibi silva frondes:
Gaudet invisam pepulisse fossor
Ter pede terram.

XIX

TELEPO'RI

Gata: Akar dagio txantxetan bezela Telepo'ri, onek bada aintzi-fiako kOndaira guztietan ixillik uzten du orduko bizitza pozkor eta etsegingarria. Kodro, Inako, Eak'en etorria ta Troia'ko gidaketak gogora dakarzki, baiña ez du ezer ere aipatzen orduko ardao ospetsu, ezkotegi samur eta jolas-etxeetaz. Auek ere ez dira ixil-zulo uztekoak.

Quantum, distet ab Macho...

5 Inako'gandik aiten erri alde iltzeko
izukor ager etzan Kodro'ganagiño
zenbat urte lez ziran jun galdetzen duzu,
t'Eako'ren sendia ta Ilion sakratu
ondoan izaniko gudate gordiñak;
baiña ez diozu, ez, zegan dan erosten
Kio'ko ardo suilla; nork epeltzen duen
suarekin ura, zein etxetan t'ordutan
Peliño'tiko otzaz askatzen naizan.

10 Ekatzu bizkor, ume, txol betea Illargi
berriaren deduz, gau-erdiaren deduz,
bai Murena aztiaren omenetan ere!
Edariak, iru naiz bedatzi txikito,
txit egokitan bear dira naspillazi.

- 15 Musa bakoiti zale dan koplari zerbelak
irutan iru ontzi ditu eskatuko.
Liskar-izu Esker'ak, aizpa billuzekin,
irutik gora ukutzen ez ditu utziko.
- 20 Txoro ibiltzea, eder zait. Zergatik eten
berezinti-txirul ots bizi gozatsuak?
Txistu-lirak zergatik mutu, zintzilika?
Esku utziak iguin nin; edatu larrosak;
entzun bei ots zoroa Liko bekaiztiak,
baita arekin aier dan auzokoak ere.
- 25 Zu nai zaitu, Telepo, Errode egokiak,
ille-eder, ta Arrats-izar ditzirakor ide.
Ni Glizere'n maite-su illak nau erretzen.

Orrah. - Batzuk diotenez eraiki zuen argibutarren aginterria; beste batzuen iritziz, asmakizun bat ez dugu besterik. - 2. Kodro, Atanei'ko errege izan zan, Bein, doritarren aurkako gudan zebillela, goi-argiz jakin zuen alderdi bietatik buruzagia iltzen zitzaion erriak irtengo zuela garaille. Ta zer egin? Kuku-marro jantzi, ta etsaien arteko gudari batekin burrukaturik, onek ilda erori zan. Orrela beretarrai eman zien garaipena. - 4. Eako'ren ondoren edo sendiko Paleu, Telemon, Akile, Neoptolcmu, Ajax eta Teukro izan ziran. - 7. Grezi'ko ardoen artean entzute zabalena Kio'koak, Lesbos'ekoak eta Tasos'ekoak zuten. - 8. Peliño mendiak ziran Kalano zingara biratzen duten Apenino aldekoak; gaillur auetatik putz-egin oi zuen aizea zan, Erroma'ri buruz, danetan ozkirriena. - 12. Murena, il-berritan egin bai zuten azti edo igarle. Erromarren artean ospe andikoak ziran aztiak, eta auxe zan bere egitekoa: egazti ta olakoen azterketaz geroa aurrez iragarri, ta ametsak, izkutu-esanak eta zantzu-ikuska-riak estalgetu. - 17. Eskerrak iru ziran: Agiaia, Talia ta Euprosiñe; ta soiñez lau-lau, ots, apaimdura barik ibilli oi ziran.

Carmen XIX

AD TELEPHUM

Quantum distet ab macho

Codrus, pro patria non timidus mori,

Narras, et genus Aeaci,

Et pugnata sacro bella sub Ilio:

- 5 Quo Chium pretio cadum
 Mercemur, quis aquam temperet ignibus,
 Quo praebente domum et quota
 Pelignis caream frigoribus, taces.
 Da Lunae propere novae,
 10 Da Noctis mediae, da, puer, auguris
 Murenæ: tribus aut novem
 Miscentor cyathis pocula commodis.
 Qui Musas amat impares,
 Ternos ter cyathos adtonitus petet
 15 Vates: tres prohibet supra
 Rixarum metuens tangere Gratia,
 Nudis iuncta sororibus.
 Insanire iuvat, cur Berecyntiae
 20 Cessant flamina tibiae?
 Cur pendet tacita fistula cum lyra?
 Parcentes ego dexteras
 Odi: sparge rosas: audiat invidus
 Dementem strepitum Lycus,
 Et vicina seni non habilis Lyco.
 25 Spissa te nitidum coma,
 Puro te similem, Telephe, Vespero,
 Tempestiva petit Rhode;
 Me lentus Glyceræ torret amor meae.

PIRRO'RI

Gaia: Pirro'k, biotzez maite zuen gazte bat, Nearko, beretik au kautan zuen neskatx baten besoetatik kendu ta urrutiratu nai du; olerkariak, ordea, ezetz diotsa, Aprika'ko leoi-eme bati leoikumak lapurtzen dizkionak bezelako arriskua izango lukela-ta. Neskatx au, ba, Pirro'k Nearko beregandik urrutiraziko ba'lu, leoi kideko izango litzake, berea duen arrapakin ederra zaintzeko. Gerkar olerkari batzuen antzera egiña dugu poema au.

Non vides, quanto moveas oerioloo.,

Ez dakusu, Pir, zein gal-zoriz dizkizun
 lapurtzen Getuli'ko leoiari kumak?
 Aurki, lapur ez-ausart, iges zu joango,
 utzirik burruka gordiñak:

5 Aurrez eingo dioten gazte talde erdian
Nearko urena indarrez kentzen bera doake.
Alkar jotze izugarri, arrapakin jabe
nor, zu ala, izango ote dan.

Zuk geziño bizkorrak gertu bitartean,
10 ark zorrotz ortz ziurrak; eta diote liskar
artekariak esku-arra ipiñi zula
aren oin billosaren pean,

ta aize leunez otzitu zula sorbaldea
ille usaitsuak naro barreia lekuan,
15 Nireu bezela eder, edo-ta Ida urtsuan
ostutakoa bezin lerdan.

Oarrak. - 15. Nireu'ri buruz Omer'ek onela dio: "Nireu, Agiaia ta Karopa erregeren seme; Nireu, Akile gurenaren ondoren, Iliion'go arresi azpianburukatu zuten gerkar guztietan ederrenak" (Iliasena, 11, 671). 16. Ganimede dugu Ida'n, Troade'ko mendi urtsuan, Tantalfo'k lendabizi ta Jupiter'ek gero indarrez ostua.

Carmen XX

AD PYRRIUM

Non vides, quanto moveas periclo,
Pyrrhe, Gaetulae catulos leaenae?
Dura post paullo fugies inaudax
Proelia raptor;

5 Quum per obstantes iuvenum catervas
Ibit insignem repetens Nearchum,
Grande certamen, tibi praeda cedat
Maior, an illi.

Interim, dum tu celeres sagittas
10 Promis, haec dentes acuit timendos,
Arbiter pugnae posuisse nudo
Sub pede palmam

Fertur, et leni recreare vento
Sparsum odoratis humerum capillis:
15 Qualis aut Nireus fuit, aut aquosa
Raptus ab Ida.

TXANBIL BATI

Gata: Ardao-murko edo ontzi au Olerkariaren jaiotz-garaikoa duzu, baita bertan daukan edari gorria ere. Ta bere adiskide Mesala'kin batera edan nai du, ardaotik neurritz edatea osasuntsu baita. Katon zuzenak berak ere etzun noizik-bein txurrun-pianplin egitea ezetsi. M. Baleri Mesala Korbin, irurogeita lau unte Kristoren aurretik jaioa. Orati'ren ikaskide izan zan Atanai'n eta guda-lagun Pilipo'n. Leenengotan Antoni'ren alderdiko izan arren, gero Oktabi'renere aldatu ta onekin burrukatu zuen Aki'n. Geroago Akitani'ko kontsul-orde izan zan. Izlari bikain ere ba-zan; baiña berrogei urteko zala, gudaritza ta politika utzirik, bakar-bizitza aukeratu zuan, elerti-barrutian murgildurik. Tibul'en babesle izan zan. Kristo aurreko 8'garren urtean illa.

O nata mecum consule Manlio...

O Manli kontsul-pean nerekin jaioa,
naiz ik erostak ekar, naiz jolas-jokoak,
naiz liskarrak ta maite loiak,
naiz lo erreza, txanbil samur:

5 nolanai deitu Masik ona didak zaitzen,
ta merezi duk egun eder bat jaitzea:
jatsi, Korbin'ek aginduta,
ardo aulagoak ixurtzen.

10 Ez au, naiz sokratiar erakutsiz ezko,
ark ez au iñundikan muska zapuztuko:
Katon zarra ere sarritan
artu ei zun ardo-beroa.

15 Ik adimen mergatza oi duk leunki mindu
geienez; ik iragar oi dituk Lieo
alaiez jakintsuen kezka
ta beren burubide ixillak.

Itxaro ta kemena ik diek itzultzen
gogo gutartzuei; ik, indarra tenkortzen
txiroei; i edanik, erregeen
errak, ez guda-tresnak lazten.

20 I Liber'ek eta, alai ba'letor, Venus'ek
t'Esker'ak, beren troiñu askatzen beluko,
ta argi miñak i luzatuko,
Poibu'k berriz iza rrak uxarko.

Oarrak - 1. L. Manli Torkuat kontsul izan zan, Kristo'ren aurreko 65'garren urtean. - 2. Ardaoak dakarzkin ondorenak izendatzen ditu emen, edaleak nolako seta naiz gora-giroa duten, alegia. -5. Masik au gure napar *gorria* bezela dugu; Masik, Itali'ko mastegi izen aundiko bat da. - 9. Sokrate, atenaitarra, aintziñeko jakitun edo pilosoporik aundiena. - 11. Lieu, Bako'ren izengoiti bat. - 22. Eskerrak (*Chantes*) gerkar il-etxe edo panteoian agertzen diran jainkotasunak iru diran, antza, Hesiodo'k dioskunez: Eufrosiñe (pozkorra), Agiaia (diztikorra) ta Thalia (loretsua). Beti alkarrekin zebiltzan irurak, margo-laukietan agiri diranez.

Carmen XXI

AD AMPLIO RAM

O nata mecum consule Manlio,
Seu tu querelas, sive geris locos,
Seu rixam et insanos amores,
Seu facilem, pia testa, somnum,
5 Quocumque lechan nomine Massicum
Servas, moveri digna bono die;
Descende, Corvino iubente
promere languidiora vina.
Non ille, quamquam Socraticis madet
10 Sermonibus, te negliget horridus;
Narra tur et prisca Catonis
Saepe mero caluisse virtus.
Tu lene tormentum ingenio admoves
Plerumque duro: tu sapientium
15 Curas et arcanum jocoso
Consilium retegis Lyaeo:
Tu spem reducis mentibus anxiis
Viresque: et neque iratos trementi
20 Regum apices, neque militum arma.
Te Liber, et, si laeta aderit, Venus,
Segnesque nodum solvere Gratiae,
Vivaeque producent lucernae,
Dum rediens fugat astra Phoebus.

DIANE'RI

Gaia: Diane zan baso-oianetako jainkosa. Ziri-bertso, au da, epigrama eder onen bitartez Diana'ren egitekoak gogorazten dizkigu Olerkariak. Baita bere udetxe gaintxoan daukart per-ondo (piñu), bat cskeiñi ere. Olerkitxairoa, inguma egalari baten irudikoa. Berau jazteko lore billa, ordea, gerkar baratzctan ibilli zitzaigula csan genezake.

Montium custos nemorum que, Virgo...

Mendi-oianetako neskatz zaindaria,
jainkosa iru-erako, frutan deitua.
entzun t'eriotik askatu:

5 Bedi zurea udetxe gaiñeko piñua,
ta urte-buru bakoitzez nik zu pozikan
okerka jo nai duen apota odolez
dizut ureztatuko bertan.

Oarrak. -2. Iru era edo antzeko; au da: Illargi, zeruan; Diana, lurazalean; eta Ekate, lurpean, ifernuan. - 4. Egiazki erditza-jainkosa erromatarren artean June zan arren, Diane'ri ere oles egin oi zioten, eta Lutziñe izenez ain zuzen.

Carmen XXII

DIANAM

Montium custos nemorumque, Virgo,
Quae laborantes utero puellas
Ter vocata adimisque leto,
Diva triformis:
5 Inminens villae tua pinus esto,
Quam per exactos ego laetus annos
Verris obliquum meditantis ictum
Sanguine donem.

PIDILE'RI

Gaia: Jainkoak, oparirik apal-txikarrena ere eder dute eskeintza-learen eskuak garbi ba'daude. Pidile au neskabc baserritar bat zan, noski, olerkiaren aapaldietatik atera dezakegunez. Ez du oparogai gurenik, baiña esku artean daukana pozarren eskeintzen du. Gerkarren antzera osoturiko Pidile izenak, au esan gura du: gutxikin naikotzen dana.

Coelo supinas si tuleris manus...

Eskuak zerurantz zut jaso ba'zenitza,
illargia sortzean, Pidilelarreko,
nare ba'zenitza itzalak kez,
urte-alez ta txerri-jaiez:

5 mastegi joriak ez luke egoi loirik
nabaituko, ez zure aziak erdoirik.
Ezta zure kimu goxoak
fruitu garaiz aro astunik.

Algido elurtuan opagai autua,
10 naiz arte ta artelatzt artean ase
naiz Alba-larretan azia,
apaiz-aizkorak du itzuliko.

Zuri ez dagokizu, erromeru-mirtu
zinglez jainko txikiak koroatzen ari
zeran orri, arei laguntza
15 eskatzea ardi-iltze ugariz.

Zure eskuak txau iku ba'dagi opamaia,
jainko aserraziak baretuko dítu
-opai gurenak bezin leunki-
20 zaldalez ta papur dantzariz.

Oarrah: - 2. Illargi berritan. 3. Itzalak, etxejainkoak (latiñez, *Lares, Penates*). - 5. Afrícu.s, egoi-sartzaldetik zetorren aizea. - 6. Erdoí, gorriña; ganaren gaixo onek izua sartu oi zuen Itali'ko alorretako nekazarietan. Eta ortarako *Robigo* zerítzaten jainko edo jainkosa gurtu oi zuten, bere omenezko jaiak -*Robigalias*- apirilla-

ren 25'an ospaturik: garia loratan dagon garaia, noski. Numa asi zan irudizko jai ori ospatzen, eta geienik ardi bat edo zakur eme bat eskeiñi oi zuten. - 9. Álgido mendian eta Alba inguruan, Apaiz-alkarteak larre zabalak zeuzkan, oparitako bear ziran abereak bazkatzeko. - 20. Zaldale, ots, garagar-iriña; ta papur dantzari, au da, gatz saltaria.

Carmen XXIII

AD PI-IIDYLEN

Coelo supinas si tuleris manus
Nascente luna, rustica Phidyle,
Si ture placaris et horna
Fruge Lares, avidaque porca:

5 Nec pestilentem sentiet Africum
Fecunda vitis, nec sterilem seges
Robiginem, aut dulces alumni
Pomifero grave tempus armo.

10 Nam, quae nivali pascitur Algido
Devota quercus inter et ilices,
Aut crescit Albanis in herbis,
Victima, pontificum secures

15 Cervice tinguet. Te nihil attinet
Tentare multa caede bidentium
Parvos coronantern marino
Rore Deos fragilique myrto.

20 Inmunis aram si tetigit manus,
Non sumtuosa blandior hostia,
Mollivit aversos Penates
Farre pio et saliente mica.

DIRU-ZALEEN AURKA

Gaia: Bere egunetako griña ta joera txarrak darabiltza txibita-gain. Diru-gosea batez ere uxatu bear da, ta ori lertzeko bidea darakusazki. Gaitz ontatik bait datoz oitura onak uztea ta erkalean

dauden txarkeri guztiak, ots, auzkak, eriotzak, ezkontz-austeak, apainkari larregiak, lege ta aginduak ezestea, ta gaiñerakoak. Erri basatiak eta txiro bizi diranak, zoriontuazoak dira askotan, ain zitaldurik ezpaitaude. August'ek, legez eta aziera onez, erri-oiturak berriz ta jaso bear ditu.

Intactis opulentior...

Zure dirutza arabitarren
altxor ikuge ta Indi jorikoa baiño
geigo ba'litz be, ta zeure ethez
Tirren eta Apuli'ko kresala esitu,
5 bear latzak gaillur goetan
diamantezko iltzeak itsatsi ezkeru,
ezin kezkatik gogoa eska,
ezta zeure burus balbe lakiotik.

Gurdikin etxolak alderrai,
10 obeto dira bizi eskitar lugiñak;
ta getar latzak, beren alor
ertz geak gari-fruitu jarei dakarkitzela
eta etzaie eder urte-golde ezik,
eta nekeren nekez ark igarua
15 ordeak lan berdín du pozten.
An errurik ez duen andrak ditu zaitzen
ama gabeko aur ordeak;
ezta jaurtzen senarra emazte joriak,
galai ederraz ez du usterik,
20 gurasoen on-ala sari aundi dute,
baiña garbitasuna ere,
alkartze txit seguruz iñoren gizona
muxitzen duna ziur asko:
gaitz amor egitea, ta erio sari.

Ai, nork nai lituzten ken-azi
25 ilketa gordin eta erri-matxinadak
ta asarre ezigea galgatzen
gotor ager zalako Uri-aita izenez
irudietan josia izan,
30 gure ondokoetan ospetsi egiñik;
on dana izan ere, omen txar!,
iguin da, ta kendua aren gosez gabiltz.

Zer ditugu espa goibelak
 35 errua min-oiñazez erauzi ezikan?
 Zer legeak, oitura gabe uts,
 ez bero-galdatan kuin dauden lurraldeak,
 ez Borea'tik ur daudenak,
 40 ez elurtza zoruan ere trinkatuak,
 ezpa-dituzte merkatariak
 uxatzen? Itxastarrak maltzur azpiratzen
 ur izugarriak. Laidotzat
 euki txirotasunak zernai jasatzera
 beartzen, on dana utzi-aziz,
 45 edo jun Kapitoli'ra oiuz giza-talde
 onak ots dagian tokira,
 edo bita ditzagun urreko itxasora
 txirlarri, atxurdin ta urre patal,
 gaitz aundien sortzaille. Erruz ondo damu
 50 ezkerro, naikunde gaiztoen
 gaiak erro-errotik kendu bear dira
 ta gure barren lar guriak
 gorputz-ifiarkun latz gordiñakaz azi.

Aitor-seme aulak ezdaki
 55 zaldi-bizkar egoten, ta eize-bildur da;
 jolasten alere ba-daki,
 naiz gerkar firridan zuk agindu, naiz legez
 galazi zorizko jokoak:
 olan aitaren gezur-fedeak laguna
 60 ta arrotza ditu atzipetzen,
 oiñorde gal-ezari dirua metatuz.
 Onela ezten di gaiztoak:
 baiña beti da zerbait oin koskor.

Oarrak. - 1. Petrea, arabitarren lurraldea, oraindik ikutu gabea zan erromatarrentzat, eskualde ura ezpaitzan izan Trajano'ren agin-terarte erromatar erki edo probintzi. - 4. Toskana'ko itxadao ta Apulla edo Adriatik kolkoa. - 10. Eskitarrak Europa'n zeukaten eskualde bat eta Asia'n beste bat; etzeukaten uririk, ez bizi-toki ziurrik, eta gaurko ijituen antzera gurdietan ibilli oi ziran ara ta ona. - 11. Getarrak, oso ankerrak ziran, auek, alderrai biziagatik, egotez Danubi inguruan eta Itxaso Beltza'ren ertzetan bizi zizkitzun; lurrak txandaka landu oí zituzten. - 28. Norbere arri-irudien oiñean Aberri-Alta deitzen dion izena idatzita ikustea, beti izan da atsegingarri. - 57. Burnizko oxo bat, giltz antzeko bultzagai batekin erabilten zana; mutikoen jolasa zan geienbat. - 63. Asko eukita ere, geiago naiaren irritsa ezin uxatu.

Carmen XXIV

IN DITIORUM LICENTIAM

- Intactis opulentior
 Thesauris Arabum et divitis Indiae,
Caementis licet oCCI pes
 Tyrrhenum omne tuis et mare Apulicum.
5 Si figit adamantinos
 Summis verticibus dira Necessitas
Clavos, non animum metu,
 Non Mortis laqueis expedies caput.
Campestres melius Scythae,
10 Quorum plaustra vagas rite trahunt domos,
Vivunt, et rigidi Getae;
 Inmetate quibus iugera liberas
Fruges et Cererem ferunt,
 Nec cultura placet longior annua;
15 Defunctumque laboribus
 Aequali recreat sorte vicarius.
Illic matre carentibus
 Privignis mulier temperat innocens:
Nec dotata regit virum
20 Coniux, nec nítido fidit adultero;
Dos est magna parentium
 Vii-tus, et metuens alterius viri
Certo foedere castitas,
 Et peccare nefas, aut pretium emori.
25 O quisquis volet impias
 Caedes et rabiem tollere civicam,
Si quaeret Pater Urbium
 Subscribi statuis, indomitam audeat
Refrenare licentiam,
30 Clarus postgenitis, quatenus, heu nefas,
Virtutem incolumem odimus,
 Sublatam ex oculis quaerimus, invidi.
Quid tristes querimoniae,
 Si non supplicio culpa reciditur?
35 Quid leges, sine moribus
 Vanae, proficiunt, si neque fervidis
Pars inclusa caloribus
 Mundi, nec Boreae finitimum latus,
Durataeque soslonives,
40 Mercatorem abigunt? horrida callidi

Vincunt aequora navitae?
 Magnum pauperies ohprobrium iubet
 Quidvis et facere et pa ti,
 Virtutisque viam deserit arduae?
 45 Vel nos in Capitolium,
 Quo clamor vocat et turba faventium
 Vel nos in mare proximum
 Gommas, et lapides, aurum et mutile,
 Summi materiem mali,
 50 Mittamus, scelerum si bene poenitet.
 Eradenda cupidinis
 Pravi sunt elementa et tenerae nimis
 Mentis asperioribus
 Formandae studiis. Nescit equo rudis
 55 Haerere ingenuus puer,
 Venarique timet; ludere doctior,
 Seu Graeco iubeas trocho,
 Seu malis vetita legibus alea:
 Quum periura patris fides
 60 Consortem socium fallat et hospitem,
 Indignoque pecuniam
 Haeredi properet. Scilicet improhae
 Crescunt divitiae: tamen
 Curtae nescio quid semper abest rei.

BAKORI

Gaia: Orati'k berriz ere, liriku bertsotan, August'en egite arrigariak abestu nai ditu, ta erdi-orditua ta txerbel samar aurkitzean artzen du ortarako asmoa. Bak'i eskerrak eman ez asten da, arengandik izan duen goi-argiatatik. Aiou edo goresmen geiegi bat bezela duzu oda au, erromatar arnasaz baiño gerkarrez geiago betea, ziur asko.

Quo me, Bacche, rapis tui...

Nora naramazu, Bak, zeurez betea?
 Zer oian edo leizera naiz emana
 arnas barriz? Zein arpetan neri
 entzungo, Kaiser'en ospe argi gurena

- 5 izartzen betikoa eta Jupiter'en
batzarre-lekuan jarri gura izanda?
Zerbait aundi dana dut nik goretsiko,
bernia, iñork agoz iñoiz esangea.
Nola arritu oi dan mendi-gaillurre tan
- 15 Ebie lo-galdu, Ebro, Trazi elur
zuri ta Rodope bas-oïñez jauzia
ikuskatuz, ala bide-gabe eder zait
bazterrak eta zabal utsa mirestea.
O lats-neskatxen ta lizar goiak eskuz
- 15 erasten dituzten Bake en jaun altsul
Ez dut txikirik ez kaskarrik esango,
ez ezer ilkorrik. Arrisku goxo da,
o Leneu, mats-aïen berdezkaz lokiak
koroatzen ditun jainko-segi ibiltea.

Oarrah. - 2. Parnaso'ko muñoetatik bat Bako'ri eskeiñia zegoen. Eta bakotiarrak, asarreak jota zeudenean, toki bakar eta ezkutuetan sartu oi ziran. - 7. Eginkari arrigarriak edestuko ditut, berriak eta oraiñarte iñork ere aitatu gabeak. Erroma tarrak, O rati'ren aurretik, etzuten izan olerki lirikurik. - 10. *Emjus*, Bako'ren izena; Ebie, bakoitiar emakume edo Bakante bat. Ebro, gaurko Maritza, Trazi'ko ibaietako errege. Bako'ren jaiak urrillean ospatu oi ziran, eta Orpeu, ibai ospetsu orren ertzetan egin ziran jai batzuetan, bakoitiar emakumak zaparreatu zuten. 11. Rodope, gaur Despoto Dagh, Balkan mendietako gaillur bat, basakar edo trazitarrak maiz beren dantzairradaz azpatua. - 14. Ibaietako neskatx edo naiadak. - 15. Bake edo bakante indatsuak. Penteu dakarkigu onek gogora; bere amak, diotenez, bakanteak lagun arturik, zakar jazartu zuen; ark lizar baten gaiñera igo zuen, baiña bakanteak, sumindurik, zugatza eratxi ta zati-zati egin zuten errege-gai doakabea. - 18. Leneu, Bako'ren izengoitia; griegotik, *Unos, ou*, dolare.

Carmen XXV

AD BACCIIUM

- Quo me, Bacche, rapis tui
Plenum? Quae nemora, aut quos agor inspecus
Velox mente nova? Quibus
Antris egregii Caesaris audiar
- 5 Aeternum meditans decus
Stellis inserere et consilio Iovis?

Dicam insigne, recens, adhuc
 Indictum ore alio. Non secus in iugis
 Exsomnia stupet Evias,
 10 Hebrum prospiciens, et nive candidam
 Thracen, ac pede barba ro
 Lustratam Rhodopen. Ut mihi devio
 Ripas et vacuum nemus
 Mirad. libet! O Naiadum potens,
 15 Baccharumque valentium
 Proceras manibus vertere fraxinos:
 Nil parvum aut humili modo,
 Nil mortale loquar. Dulce periculum est,
 O Lenaeae! sequi Deum
 Cingentem viridi tempora pampino.

VENUSI

Gala: Olerkaria, oraiñarte, maite-arloan aritu da, ta ez alperrik ere, garaitza aundiak lortu baititu. Baiña orain zaartuz dijoa, ta maitakeriai agur egin bear. Ba-du lira (jogaillua), ainbat burruka irabazten lagundu diona; au, aintziñako gerrariak beren iskilluak Marte'ren aldara ondoan bezela, Venus itxastarraren aldarean jarriko du. Azkenean, alere, Kløe, bizitza zear ainbat eraman-azi diona, aspertu nai du. Aren buru arroa heeratu dezala, eskatzen dio Venus i.

Vixi puellis nuper idonems...

Lengorarte neskatxen maite-gai naiz bizi,
 ta nere burrukak ez ziran aintzageak;
 orain, iskillu ta goi-ats burrukaz illak,
 orma onek barnean dizkit idukiko.

5 Venus itxastarraren ezker-alderdia
 gordetzen dunak. Emen, utz izkizu emen
 zuzi sutan ixio, zetai ta idargiak,
 zemaitzaille zakarto, ate itxienak.

Ene jainkosa, Txipre zoritsu ta Menpi
 10 elur sitonirik ez dakina, dauzkazuna;
 oi erregiña!, iku ezazu bein beintzat
 zeure zigor garaiez Kløe tontorduna.

Oarrah. - 3. *Barbiton*, goi-arnas, goi-atz; kantu edo lira, aintzi-ñakoen eresi-jogaillua, ari askoduna. - 5. Au da, eguzki aldera begiratzen zuna. Jainkoen irudiak beti ere, jauretzetan, iparraldeko ormearen aurrekaldean egozan, eguardi aldera begira; sartzaldea zeukaten eskubitan eta sortaldea ezkerrean. - 10. *Sitonia* zan gaurko *Longos* lur-besoa, *Atos* menditik egoaldera, aintziña baten *Makedoni*'ri egokiona. - 12. *Buru-zut*, arro, tontordun dabillen *Kleo*, *Venus* maiz iruditu oi zuten, zartaillu edo zigor bat eskuan zuela.

Calmen XXVI

AD VENEREM

Vixi puellís nuper idoneus,
Et militavi non sine gloria:
Nunc arma defunctumque bello
Barbiton hic panes habetis,
5 Laevum marinae qui Veneris latus
Costodit. Hic, hic ponite lucida
Funalia, et vectes, et arcus
Oppositis foribus minaces.
O quae beatam, Diva, tenes Cyprum, et
10 Memphin carentem Sithonia nive,
Regina, sublimi flagello
Tange Chloen semel arrogantem.

XXVII

GALATERI

Gaia: Galate'k itxasoz joan nai du, ibillaldi luzean nunbait; baiña Orati'k ezetz diotsa, itxasoa arriskuz ta galzoriz betea dagola-ta. Beti izan da gizona adur-zale itxasoaren sabel barman daukana jakin-nairik batez ere. Zeinbat olako datzan, alere, orain kresalpean lo-zorro. Eroak! Begira Europa'ri zer gertatu zaion: zezen bategan uste-geiegi jarri zuelako, zenbat negar eta karrazi! Ezta gutxiago aitari emango dion kezka, naigabe ta samiña ere.

Impios parrae recinentis ornen...

Zitalei berraie ots txar aztorearen
naiz zakur izorraren naiz Lanubin goitik
jatsi dan otso-eme nabarraren naiz-ta
luki ernaiaren adurrak:

5 Puska beza sugeak asi dun bidea
zearka arabegi lez aldin ba'ditu
moxalak izu. Noren bildur naiteke ni,
azti arduratsu, onbera?

Gaiñeko euri-igarle degun egaztia
10 zingira munetara biurtu orduko,
eskariz esnatuko dut euzki-aldetik
igarle-kantuzko belea.

Zoritsu zu, Galate, nai dezun tokian,
bizi zaitetz gogora, nitaz oroituki:
15 berdatxak ez erroiak, zure ezker egazka,
etzaiztute, ez, galaziko.

Baiña ez dakusazu zein puxiga doan
Orion beerantza? ta nik ba-dakit zer dan
Adri'ko kolko illuna, baita zer gaitz ere
20 dagin Japix txuriak.

Oar bezate etsaien emazte ta umeak
sortuaz doan ipar-oldar itxu-itxua,
ta itxas beltzaren orro, ta ur-ertzen ikara,
enbatak gorri zauritzean.

25 Bai, Europak ere elur saietsa eman zion
zezen maltzurrari ta ikara zan ausart
itxasoa ta onen arrai gezurtiak
bidutziz izor ikustean.

Zelai zear aistian lorak alai bilduz
30 ta zor zaien koroia Ninpai oialdurik,
gau izpiz josian etzun besterik ikusi
ura eta izarkiak baizik.

Ta Kreta indertsura, eun uridunera,
jo alean, "O aita! -oiu egin zuan-,
35 alabaren izen aitzu, oi kupida
arrokeriaz gorritua!

Nundik? Nora eldu naiz? Iltze bat gutxi da
neskatzen utsarentzat. Itzar nago ta gaitz
egiña negartzen al? Ala oben gabe,
40 antz-iduri utsalak iruzur.

Marfil-atetik iges loa dakaztenak?
Zer ote zan ohea: itxas-zabal zear
ibilli arat-ona ala erne-barri ziran
liliak esku-guri bildu?

45 Orain iñork ba'lemait ats gaiztoko oni
zezen doillorra, burniz ausi, oraiñarte
bizi maite izan dudan bidutzi-adarrak
puskatzen nintzake saiako!

Zirtzilko laga ditut aberri-itzalak:
50 su-leiza bera ere likits aut berantzen!
Jainkoren batek adi ba'legit balinba,
billots nenbilke leoi arte!

Mazel gordin auetan giar itsusia
jarri ta zer samur oni gozoa atera
55 orduko, oindiño eder, katamotzen jaki
biurtua ikusi nai nuke.

Europa zirtzil, aitak be urrundik diozu,
zergatik zuk iltzea luza? Lizar ontan,
zintzoki segi dizun gerriko onekin,
60 lepoa zenekake mindu.

Naiz-ta, ederrago ba'zaizkizu iltzeko,
arkaitz-arri zorrotzak, ea, eman azkar
arkaitz biziari; naiz, errege alaba,
naiago baldin ezpa-dezu

65 Mirabe-muilloa artu, t'andre loiaren
oaide izana. Dolumen ontan an zegoan
Venus, maltzur ta irrikoi, ta bere semea,
ustaia laza zuelarik.

Gero, isekaz ase: "Utz zazu -esan zun-
70 asarre, sudur-aize ta beztun dana;
zezen gaitz-etsiak, bai, adarrak emango
dizkiozu ausi dizkiozun.

Ez dakizu Jobe'ren emazte zeranik?
Utz zotiñak, eta ikas zorion aundia
75 onean eramaten. Lurbira-zati bat
zure izenez baita deituko.

Oarrah. -Lanubin, Lati-ko uri zarbat, Api bide ertzean, muiñotxo baten gaiñean jarria; emendik zijoan bideak Brindis'era, itxasora ta Grezia'ra zeraman. - 5. Euria beren kantuz iragarten duten egaztiak belea, belatxinga ta gau -ontza ditugu batez ere. - 18. Orion, izardi bat; beronen jeikitze ta sartzeak, euritsuak izan oi dira geienez. 20. Japix, gureztat gallegu dan aizea. - 25. Europa, Agenor edo Penix'en alaba, Jupiter'en zezenaren antza artu ta ostu egin zuna, Minos, Radamentu ta Sarpedon'en ama izan zan. - 41. Egíazko ametsak adar-atetik irtetzen ziran; gezurrezkoak, ordea, marpillezkotik; one-la dio Bergili'k, "Eneida'n", Vrgarren kantuan. - 47. Zezen, bidutzi edo monstu au, Kreta'ra eldurik, izkutatu egin zan, eta Jupiter *giza*-antzean agertu zitzaion Europa'ri.- 75. Mundua aintziñakoak bi edo iru zatitan banatzen zuten: Asia ta Europa, Varron'ek, Salusti'k eta Plini Zarrak diotenez. Beste batzuk,, ostera, Obidi'k bezela, irutan zatitzen.

Carmen XXVII

AD GALATEAM

Impios parrae recinentis ornen
 Ducat, et praegnans canis, aut ab agro
 Ra^y a decurrens lupa Lanuvino
 Fetaque vulpes:
 5 Rumpat et serpens iter instítutum.
 Si per obliquum similis sagittae
 Terruit mannos. Ego cui timebo
 Providus auspex,
 Antequam stantes repetat paludes
 10 Imbrium divina avis imminentum,
 Oscinem corvum prece suscitabo
 Solis ab ortu.
 Sis licet felix, ubicumque mavis,
 Et memor nostri, Galatea, vivas:
 15 teque nec laevus vetet ire picus,
 Nec vaga cornix.
 Sed vides, quanto trepidet tumultu
 Pronus Orion. Ego, quid sit ater
 Hadriae, novi, sinus, et quid albus
 20 Peccet Iapyx.

Hostium uxores puerique caecos
Sentiant motus orientis Austri, et
Aequoris nigri fremitum, et trementes
Verbere ripas.

25 Sic et Europe niveum doloso
Credidit tauro latus, et scatentem
Belluis pontum mediasque fraudes
Palluit audax.

Nuper in pratis studiosa florum, et
30 Debitae Nymphis opifex coronae,
Nocte sublustri nihil astra praeter
Vidit et undas.

Quae simul centum tetigit potentem
Oppidis Creten, Pater O, relictum

35 Filiae nomen, pietasque, dixit,
Victa furore!

Unde? quo veni? Levis una mors est
Virginum culpae. Vigilansque ploro
Turpe commissum? an vitiis carentem

40 Ludit imago.

Vana, quae porta fugiens eburna
Somnium ducit? Meliusne fluctus
Ire per longos fuit, an recentes
Carpere flores?

45 Si quis infamem mihi nunc iuvenum
Dedat iratae, lacerare ferro, et
Frangere enitar modo multum amati
Cornua monstri!

Impudens liqui patrios Penates:

50 Impudens Orcum moror! O Deorum
Si quis haec audis, utinam inter errem
Nuda leones!

Antequam turpis macies decentes
Occupet malas, teneraeque succus

55 Defluat praedae, speciosa quaero
Pascere tigres.

Vilis Europe, pater urguet absens,
Quid mori cessas? Potes hac ab orno
Pendulum zona bene sequuta

60 Laedere collum.

Sive te rupes et acuta leto
Saxa delectant, age, te procellae
Crede veloci: nisi herile mavis
Carpere pensum,

65 Regius sanguis, dominaeque tradi
 Barbarae pellex. Aderat querenti
 Perfidum ridens Venus, et remisso
 Filius arcu.
 Mox, ubi lusit satis, Abstineto,
 70 Dixit, irarum calidaeque rixae,
 Quum tibi invisus laceranda reddet
 Cornua taurus.
 Uxor invicti Iovis esse nescis;
 Mille singultus; bene ferre magnam
 Disce fortunam; tua sectus orbis
 Nomina ducet.

XXVIII

LIDE'RI

Gaia:Lide'ri dei dagio Olerkariak. Neptuno'ren jaia, ots, "Neptunalia", garillaren 23'an egin oi zana, berekin bat edanez eta kantatuz ospatzera; ez gero, Tiber ertzetan ostozko txabola barruan, bere etxean baizik. "Nik Neptun eta beronen Ninpak goretsiko ditut; zuk, Ordea, Latona ta Diane, Venus albora utzi gabe".

Pesto quid potius die...

Zer egin nezake oberik
 Neptun'en jai egunez. Ekar, Lide garhots,
 ixillik dezun Kekuho ori,
 eta indar-azi zeure sen ornitua!

5 Oartzen al beerantza doan
 eguerdia? Ta zuk, eguna gelditu
 hai'litz, ez dezu nai sototik
 Bihul kontsularen garaiko suilla atera.

Txandaka biok goretsiko:
 10 nik Neptun ta Neraitarrak, adats ozkirri:
 zuk, lira makurrez Latona
 Ta Diana'ren suzko geziño ariñak.

Eta azkenez guk abestuko
 Gnido eta Kiklade istatsuen bizi
 15 ta Pafos kisne uztarritukin
 ikertu oi duna. Gau be erestua duke
 merezi ditun kantu illaunez.

Oarrak. - Kakubo, Lati'ko eskualde bat zan, bertan artzen ziran ardaoak izen aundia eman ziotena. - 8. Txanbil edo suilletan - amphora- gorde oi zuten erromatarrak ardoa; ez dakizu zer neurritakoak ziran ontziok. M. Kalpurni Bibul 59'garren urtean izan zan kotsul, Juli Kaisar'ekin batera; Suetoni'k diñoanez, etzun gauza aundirik egin.

Carmen XXVIII

AD LYDEN

Festo quid potius die
 Neptuni faciam? prome reconditum,
Lyde strenua, Caecubum,
 Munitaeque adhihe vim sapientiae,
5 Inclinare meridiem
 Sentis: ac veluti stet volucris dies,
Parcis deripere horreo
 Cessantem Bibuli Consulis amphoram.
Nos cantabimus invicem
10 Neptunum, et vicides Nereidum comas:
Tu curva recines lyra
 Latonam, et celeris spicula Cynthiae:
Sumo carmine, quae Gnidon
 Fulgentesque tenet Cycladas, eta Paphon
Iunctis visit oloribus:
 Dicetur merita Nox quoque naenia.

XXIX

MEKENA'RI

Gata: Orati'k guztiz gizabidetsu dei egiten dio Mekena'ri, berak uritik kanpo daukan etxean egun batzuetan bizirik, atsedenari amor emon eta baketan egon daiten. Bere arazoak ez dirala ondo joango-ta, kezkarik baldin ba'luke, bera Erroma'tik landara pizkat en bizi izan arren, orrek ez diola ondoren txarrik ekarriko, diotsa adeitsu ta begirune aundiz; etorteko danaren aurrean ez ditugu geiegi gora jaso bear geure indarren kemenak: Zoria guztiz aldako-

rra dugu. -- Oda eder-ederra, mamitsua benetan. Orati emen ez dabilkigu estoikuen eskolan, ez epikurtarrenean, bien arteko baiño.

Tyrrhena regum progenies, tibi,.,

Leendik dut, tirrendarren errege leiñuko
Mekena, nere etxean, upa iñoiz makurtu
gabean, mama txit goxoa,
larros-lore guriguria

5 ta zure illentzat indi-ur ixuria.
Ez luzatu. Ez beti zur begitu Tibur
ezkoa, ez Esul-zelaiak,
ez Telegon dongearen gaiñak.

Laga gogaikarri dan ugaritasuna,
10 ta odei jaikien ur dagon jauregia;
utz ke, ondasun ta Erroma
zoritsuko oskar mirestea.

Aberatasi maiz zaie eder aldatzea;
15 purpur ta trozal gabe, baratz txikipean
txiroen apari garbiak
maiz bare zitun aien kezkek.

Or Andromen'en aita argiak su ixillia
eskeintzen, or Prozion ere txit asarre,
ta Leoi suaren izarra,
20 t'egun antzuak dakaz euzkik.

Or artzain nekatua talde nagiz itzal,
iber ta Silban gorriaren txara billa;
ta ur-ertz ixillak eztu
oar aize nagian atsa.

25 Erri onari buruz zu kezkatan zabiltz;
bildur zera Uriaz, zer nai ote duten
sertarrak eta Ziro'k jaurri
Raktra'k eta Tanais naastuak.

Jainko zugurrak dauka gau illun gorderik
30 geroaren irteera, ta irri dagi maltzur
ura jakin-nairik ilkorra
lar artegatu baldin bada.

35 Molda zazu gaurkoa zuzen, ta besteak
 ibai antzo doazki, orain kaltze erdiz
 paketsu etruskar mugaruntz,
 orain arri janak narrastuz,

 ta zugatz erauziak, abere t'etxeak,
 denak nasi, ez mendi ta urbilleko oianen
 40 orro gabe, uiol zakarrak
 sumintzean ibai-barneak.

 Ura da bere jabe, ta zoritsu bizi,
 eguna aituz, "Bizi izan naiz" ots dezakena.
 Biar, naiz Aitak odei beltzez
 goia illundu, naiz euzki garbiz

 45 azaldu, izana eztu ez izan egingo,
 ezta ere ez digu ordu igeskorrak
 eskura emana aldatuko,
 ezta ezerez biurtuko

 Zoriak, bere arlo tzar-zitalez alai,
 50 ta bere jokabide ozarretan ausart,
 txit ditu aldatzen omenak,
 oin niri gero ari onak.

 Dutanean det gora; baiña ego azkar
 igestean, ez diot emana itzultzen,
 55 ta nere indarrean oildurik,
 sarige ezeukia det billatzen.

 Zurrunak ulaizez ots ba'dagi, ezta nere
 ai-eskarira jo ta ziñitzez pakatu,
 Txipre ta Tiro'ko salgaiak
 60 ur zekenaren ogasunak

 ezpaitituzte iñolaz ugariagotzen.
 Ni, ordun, arraun biko batelean baitu,
 Egeu zakar zear naramake
 aize leun ta Polux bizkiak.

Oarrak. - 5. *Balanus*, jario-ur oso usaitsua ematen zuen Indi-
 urritza; Arabi ta Aigito'koak batez ere entzute aundikoak ziran. - 7..
 Esul, Lati'ko uri zar bat, Preneste ta Tibur tarteko mendiska baten

kokatua. - 8. Telegon, au da, Tuskul, Ulises eta Kirke'ren seme zan Telegon'ek irasia; onek, jakin gabe, bcre aita ji zuen. Orregatik deitzen dio Olerkariak "dongea", aita iltzaillea. - 10. Mekena're.n jauregia, Eskilin mendi gainean zegoen, goi-goi eraikia. - 17. Kepeu, garillaren bederatzian agertzen dan izar-moltzoa. - 18. Prozion, garillaren amabostean agertu oi da, Zakurra baiño amaika egun leenago. - 19. Beste izar-moltzo bat. Eguzkia garillaren 30'an sartzen da Leoiaren ezaugarrian. - 22. Silbandarrak, mendi ta zelaietako erdi-jainkoak ziran. - 27. Eskitiar erriak, Asia'n; Baktra'n Ziro izan zan nagusi. - 28. Tanais, gaur Don, Errusi'tik datorren ibaia; eskitar eta sarmatarrak bizi ziran ibai onen alderdietan, beti alkarrekin ixtillu ta nasteeatan.

Carmen XXIX

AD MAECENATEM

Tyrrhena regum progenies, tibi
 Non ante verso lene merurri cado
 Cum flore, Macenas, rosaruIn, et
 Pressa tuis balanus capillis
 5 Iam dudum apud me est. Eripe te morae:
 Ne semper udum Tibur et Aesulae
 Declive contempleris arvum, et
 Telegoni iuga parricidae.
 Fastidiosam desere copiam, et
 10 Molem propinquam nubibus arduis:
 Omitte mirari beatae
 Fumum et opes strepiturnque Rornae.
 Plerumque gratas divitibus vices,
 Mundaegue parvo sub lare pauperum
 15 Cocnac, sine aulacis et ostro,
 Sollicitam explieure frontem.
 Iam clarus occultum Andromedae pater
 Ostendir ignem: iarn Procyon furit,
 Eta stella vesani Leonis,
 20 Sole dies referente siccos.
 Iam pastor umbras cum grege languido
 Rivumque fessus quaerit, et horridi
 Dumeta Silvani: caretque
 Ripa vagis taciturna ventis.

25 Tu, eivitatem quis deceat status,
Curas, et Urbi sollicitus times,
 Quid Seres et regnata Cyro
 Bactra parent, Tanaisque discors.
Prudens futuri temporis exitum
30 Caliginosa nocte premit Deus:
 Ridetque, si mortalis ultra
 Fas trepidat. Quod adest, memento
Componere aequus: cetera fluminis
Ritu feruntur, nunc medii alveo
35 Cum pace delabentis Etruscum
 In mare, nunc lapides adesos,
Stirpesque raptas, et pecus et domos
Volventis una, non sine montium
 Clamore vicinaeque silvae,
40 Quun fera diluvies quietos
Irritat amnes. Ille potens sui
Laetusque deget, cui licet in diem
 Dixisse, Vixi: cras vel atra
 Nube polum Pater occupato,
45 Vel sole puro: non lamen inritum,
Quodcumque retro est, efficiet: riegue
 Diffinget, infectumque reddet,
 Quod fugiens semel hora vexit.
Fortuna saevo laeta negotio, et
50 Ludum insolentem luciere pertinax,
 Transmutat incertos honores,
 Nunc mihi, nunc ali benigna.
Laudo manentem; si celeres quatit
Pennas, resigno quae dedit, et mea
55 Virtute me involvo, probamque
 Pauperiem sine dote quaero.
Non este meum, si mugiat Africis
Malus procellis, ad míseras preces
 Decurrere; et votis pacisci,
60 Ne Cypriae Tyriaeque merces
Addant avaro divitias mari.
Pum me, biremis praesidio scaphae
 Tutum, per Aegaeos tumultus
 Aura feret, geminusque Pollux.

MELPOMENE'RI

Gaia: Orati pozik dago, lirikar bertsoz bere izena ta entzutea iltze illezkorra kinjosi ditulako. Aintziñako arreegak beren piramide zut-goitituekin baiño oroigailu aundi ta ederragoko eredu a jaso dio bere omenari. Zer gogo du geiago? Oda au aurreko iru liburuen amaia lez degu. Lenengo liburuko lenengo odan Mekena goretsi zuen; azkenengo au, ordea, Melpomene'ri eskeintzen dio. Ba liteke biok garai batean egiñak izatea.

Exegi monumentum aere perennitils...

Borontze baiño betikorrago
oroigailu bat det eraiki nik,
ta piramideen errege-zoru
bezin jaikia: ez euri-gorritz
5 ez ipar mekoz eratx eziña,
ez urte-lerro zenbatu gaitzak,
ez aldi txarrez iges-bearrak.
Ez naiz guztia ilko, ta nere
zati auncli bat Libitin'gandik
10 muzin egingo. Beti bernia,
geroak txaloz goi nau jarriko,
apez nausia neska ixillakin
Kapitoli'ra igotzorduan.

Aipatua ni Aufi zakarra
15 zarata utsez doan tokian;
Dauno, urrez txiro zan lurraldean,
erri mukerren nausi izan zan
bazter itsean; aipatua ni,
jatorriz apal, eoli-bertsoak
20 lati neurrira lenen itzuli
neuk ba-nituan. Ar, Melpomene,
nere garaitza, ondo lortua,
ta neri gogoa estutu, arren,
delpik-ereñoz buru-adatsa.

Oarrah. - 8. Aigito'ko erregeak, beren illobitzat, arrimeta ikaragariak jaso-azi zituzten, ots, arri-txuntxur edo piramideak. - 10. Libitiñe, illeten jainkosa. - 13. Apez nausia neskatx (bestal) nausia;

neskatxa ixillik egon ni zan progu ta abesbatzen erdian. - 14. Gaur Ofanto, Apuli'ko ibaia; onen alboan zegoen Venusa, Orati'ren jaioterria. - 16. Dauno, Pilumno ta Benilli'ren semea, Turno'ren aita, lurralde guztiz legorrean izan zan errege.

Carmen *11

AD MELPOMENEM

Exegi monumentum acre perennius,
Regalique situ pyramidum altius;
Quod non imber edax, non Aquilo impotens
Possit diruere, aut innumerabilis
5 Anorum series, et fuga temporum.
Non omnis moriar: multaque pars mei
Vitabit Libitinam. Usque *ego* postera
Crescam laude recens, dum Capitolium
Scandet cum tacita Virgine pontifex.
10 Dicar, qua violens obstrepit Aufidus,
Et qua pauper aquae Daunus agrestium
Regnavit populorum, ex humili potens,
Princeps Aeolium carmen ad Italos
Deduxisse modos. Sume superbiam
Quaesitam meritis, et mihi Delphica
Lauro cinge volens, Melpomene, comam.